


GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia --Goierriko Aldizkaria-- dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. 31. zenbakia. 93ko otsaila.

Abesbatzen garaia



⇒ GOIERRIKO HIRU ABESBATZI ERREPASOA: ZEGAMAKO "ORKATZ", BEASAINGO "LOINATZ" ETA ORDIZIAKO "OROITH". LAGUNTALDE HAUEN PENAK ETA GARAIPENAK.

⇒ JOXE AZURMENDI ZEGAMAR FILOSOFOA, EUSKAL PENTSALARI OPAROENA, XABIER MENDIGURENEK ELKARRIZKETATUTA.

⇒ GOIERRIAR ARGAZKILARITZAREN BI MUESTRA: JOXE MARI TELLERIA ETA GEMA M. ARRUGAETA. ELKARRIZKETA GEHIAGO: PRUDENTZIO JAUREGI PILOTAEGILEA. JOSETXO ELKORO IGERILARIEN GIDARI ETA KIROLZALEA. BEASAINGO "PORTERIA" AUZO-ELKARTEKOEKIN.

⇒ ARTIKULUAK: GOIERRIKO EUSKALTZALEOK EZ GARA GUTXIAGO; IDIAZABALGO ETXEIZENEN GARRANTZIA; ENIRIO-ARALARKO "UNIOA; MUNDUAREN MUTURRERAINOKO BIDAIA... BERRI UGARI.

GERO GEROKOAK.

ORAIN EUSKARAZ BIZI!

GOIZTIRI



EUSKALTEGIA

MATRIKULA
ZABALIK!

OTSAILAREN 12rarte
MAILA GUZTIAK

æek
izan euskaldun!

ORDIZIA: SANTA ANA IKASTETXEA; 889174 Tfna.

BEASAIN: NAGUSIA KALEA, 5 3.; 889340 Tfna.

LAZKAO: ANTSOTEGI. ELOSEGI, 16 2.; 8893 40 Tfna.

FOTOKONPOSAKETA

ANtZA

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfñoak: (943) 37 15 45 Faxa: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

GRAFIKAGINTZAN AURRERA GOAZ

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

31. zenbakia. 93.eko otsaila. Debaldeko alea. Tirada: 2.700 ale. 2.200 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre-etxea, 1. pisua (Correos-gainean). Tfna: 889612. Faxe: 889545. 124 posta kutxa. Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza du.

Erredakzioa: Jon Arano ("Mikel Aramendi"), Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Rosa

Amundarain, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Joxe Jabier Iraeta, Luis Mari Barandiaran, Antonio Berasategi, Joxe Manuel Odriozola, Xabier Mendiguren, Igor Eguren, Xabier Gartzia, Iñaki Amundarain, Txomin Sukia, Josetxo Elkorro, Julian Alustiza eta Martin Lizarazu.

Azala eta zenbait argazki: Fototxe.

Gure eskerrona: Gure "sponsorei: publizitatea ematen diguten guztiei. Lankide Aurrezkiari, Kultura-ri, "Hiper Olaberria"ri, Goierri-

ko Udal Ordezkariei, "Antza"ri eta "Egunkaria"ri. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzenoi.

Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2 Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907


Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanan eta iritzien erantzunkizunik.



Zein da aldizkari irakurriena Goierriin? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa

Dei 889612 telefonora.



Ideia jatorrenek ere bultzada behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote
GOIERRITARRAri

GOIERRITARRA

Tfnoa: 88 96 12

publizitate-prezioak:

Behin):

Modulo bat.....	4.000 pzta.
Bi modulo	8.000 pzta.
Orrialde erdia.....	20.000 pzta.
Orrialde osoa.....	40.000 pzta.

Prezio hauek zenbaki baterako baliokidunak dira. Urtean 10 zenbaki argitaratu behar dira.

ratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbaki-tan beren publizitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat.....	3.500 pzta.
Bi modulo	7.000 pzta.
Orrialde erdia.....	17.500 pzta.
Orrialde osoa.....	35.000 pzta.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:.....

Herria.....Tlf.....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak
gogor diharduela euskal gizarte
eta enpresagintzaren alde. Oso
Kutxa geure-geurea dela. Euskal
Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen
al duzu gure profesionaltasun
-eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura
gehiago. Familientzat, interes han-
diagoak kontu korrontean eta ohiz-
ko libretan. Beste kutxetan baino
gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da, profesio-
naltasun garbiko bidean.

betaurrekoak
Tania & Mauro
**ALAITU
EZAZU
BEGIRADA
2.550 Pta.**

Tania & Mauro betaurreko berriak
MULTIOPTICASen azkena zure begiak modaz jatzeko.
Beren diseinu erakargarri eta kalitatezkoak. Eta
prezioa, harrigarria: 2.550 Pta.

Eta beti J. LARRAÑAGA OPTIKArekin.
Zatoz eta zerorrek froga ezazu.



Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradian Enparantza, s/n - ORDIZIA

MULTIOPTICAS
Beti Zuri Begira

Lana

□Euskaraz dakien neska behar da 2 ume zaindu eta etxekolanetarako. 889552 tfnoa. Beasain.

□Etxekolan, bulego eta atari garbiketarako prest nagoen neska naiz. Goizez dei 885880ra.

□Klase partikularrak ematen ditut: OHO, mate, hizkuntza...; Lanbide Hezkuntzan, kontabilitatea; Batxilergoko maila guztiak. Talde txikika edo banaka. Dei Altamira auzora, 883365ra, Ordizia.

□Goizez eta orduka lan egiteko pronto nago, etxe, bulego, lokal, tenda edo taberna garbituz. Rakelengatik galde gaueko 8etatik aurrera: 889868 tfnoa.

Salerosketak

□Ume-kotxesila salgai, kapota eta guzti. 885741ra dei.

□Bibradore abdominalun "Ziklostatik" ia-berria salgai. Aukera ederra: 15.000 pzt. 888820, Ordizia.

□Ehize-arku gehigarri duna saltzen dut. 20.000 pztan. dena, negoziagarri. 880402 Josean.

□Fregadera inoxidablea salgai, xukalekuarekin, oso merke. Arratsalde dei, 882467ra.

□Kerosenozko berogailua salgai, erdi-prezioan, ezin-hobea: 888206.

Etxebizitzak

□Ordiziako "Poligonoan" etxe jantzia salgai, berogailu-sistema partikularraz. Egoera onean dago, aukerakoa: 884032.

□Partikularrak partikularri apartamendua salduko lioke Errioxako Haron, jantzia, prezio bikaina: 4 milioi. 883612ra dei.

□Pisu amueblatua salgai Ordizian: 160140 tfnoa.

□Etxebizitza salgai Lazkaon, berogailu eta hobe kuntez hornitua, 2etik 3etara eta 9etatik 10etara dei. 883838.

Agurrak:

"Euskara ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, ez eta dakitenek hitzegiten ez dutelako, osorik 'ez dakinunok' hitzegiten ez dugulako baizik".

(Ijitoak)

SAN BLAS JAIK IDIAZABALEN

Otsailak 3, asteazkena, San Blas eguna

Txistularien kalejira goizeko 10etan; 11etan Meza Nagusia. Ohizko erroskila-bedeinkazioa; Hamaiketako Bikario-etxean, herriko txirrindularien lasterke-ta eta eguerdi artean herriko trikitilariak kalerik kale. Arratsaldeko 6,30etan afizionatu mailako eskuzko pilota partiduak Igarondo pilotalekuan. 7,30tik goizeko 3,30ak arte, Egan taldeak alaituriko dantzaldia.

Otsailak 4, osteguna, San Blas Txiki (ezkonduen eguna)

Goizeko 10etan Txistularien kalejira; 11etan ohizko hamaiketako herriko plazan, trikitilariekin; 12etan bertso-saioa: Xabier Amuriza eta Jon Sarasua plazan; ordubatean Axari Dantzataldea; arratsaldeko 5etan herriko pelota txapelketako finala Igarondon; 6,30etan, taloak eta sagardoa ziritik dohan plazan; 7,30etatik 3,30ak arte dantzaldia: Joselu Anaiak.

Otsailak 5, ostirala

Goizeko 11etatik 2ak bitarte eta arratsaldeko 4retatik 7etara, umeentzako parkea Zelaan; 6,30etan nesken futbito txapelketako azken partidua futbito pistan; ondoren mutilena; 8,30etan Zezen suzkoa plazan; gaueko 11etan helduen tanborrada; ordubateatik 5etara, dantzaldia: Jator.

Otsailak 6, larunbata (Koadrilen eguna)

Txistularien kalejira goizeko 10etan; 10etan eta 3retan herri mailako Plater hausketa, Jasoko zelaian; 12etan paella erraldoia egiten hasi eta 2,30etan bazkaria dohain harekintxe plazan; 4,30etan haurren tanborrada; 7,30etan herri kirolak futbitoko pistan herriko 2 koadrilen artean: harrijasotzen, aizkoran, trontzan, korrikan, txingan, koskol biltzen eta zaku karreran; 10,30etan pala partiduak Igarondon; gaueko 11etatik goizeko 4ak arte dantzaldia: Drindots.

Otsailak 7, igandea

Txistularien kalejira eta probintzi mailako Bolajokoa goizeko 10etan; Ziklokrossa 11etan, kadete eta jubenilak; arratsaldeko 5,30etan IX. Dantza Txapelketa mugatua Igarondon; 8,30etan Zezen suzkoa plazan; 7,30etatik ordubiak arte dantzaldia: Joselu Anaiak.

Egunotan herritarren eskulanak Kultur Etxean ikusgai.

Bertsolariak Zegaman

Zegamako Kasinoak antolatuta, urtarrilaren 30ean, gaueko 10,30, Polikiroldegian, Lizaso, Euzkitze, Egaña, Murua, Sarasua eta Peñagarikano. Gai-jartzaile: Pello Urretabizkaia. Berogailua izango da.

Ordizia/Beasaingo Goardiako farmaziak:

Otsailak 3: Atorrasagasti; 4: Azpilikueta; 5: Jauregi; 6-7: Cuesta; 8: Laurnaga; 9: Cuesta; 10: Arriola; 11: Urbizu; 12: Atorrasagasti; 13-14: Arriola; 15: Azpilikueta; 16: Jauregi; 17: Laurnaga; 18: Cuesta; 19: Arriola; 20-21-22: Urbizu; 23: Atorrasagasti; 24: Azpilikueta; 25: Jauregi; 27-28: Atorrasagasti.

A ze flaxa !



Argiketa / garbiketa bat

GOIERRITARRAren 29. alean Balakataklin taldeari egindako kritiken balizko izenpetzailearen identitatearen bila aritu gara hau zinatzen dugunok, bai Udaletxean eta bai ezagunen artean galdezka. Izan ere, Manu Osinalde ordiziar aspaldi zenduaren alarguna etorri baitzaigu argibide eske. Ohartzen garenez, artikulu hura izenpetzen zue-na faltsutzat jo beharko dugu seguruenik, Ordizian enpadronaturik behinepein ez dago eta. Bere izenez firma zezakeen edota ez beste inorena (kasualitatea norena!) nahastu gutxienez. Triste da benetan horrela bada eta mesede gutxi berak mantentzen zituen tesiei. Kritika hura ez zen beste mundukoa ere eta izenkidea agertu dadila eskatzen dugu (esistitzen badu). Ohar honekin Manu zenaren izen ona garbi utzi nahi dugu. Bakoitzari berea.

**Mertxe Mendibaso
eta Erredakzioak**

“Balakataklin”ek euskaraz jakin ezezik euskaraz hitzegiten du

Atal honetan bertan, abenduko alean, ordiziar batek itsuki jotake egiten du “Balakataklin” astialdiko talde parrokiaren aurka, bere ustetan (ustek erdi ustel) talde honek euskara zokoratu ezezik zapaldu ere egiten bait du.

Lehenik argitu nahi genuke, pertsona honek, bere itsutasunean, ez dakiela zertaz mintzo den ere, kontatzen duen gertaera ez delako gure taldean inoiz eman. Besta baterako, hobe luke hitzegin aurretik aritu behar duenaz argibide gehiago (eta egitazkoak) jasotzea!

Bigarrenik, pertsona honek ez duela inolako erantzunik merezi, erabilitako hizkuntza despektibo eta mingarria dela medio. Baina euskalzaleek eta goierritar orok bai merezi dutela azalpen batzu gure aldetik:

1/ Balakataklinek apostu garbia egin dauka bere hastapenetatik euskararen alde. Gaur egun begirale guztiak euskaraz mintzatzen dira eta zailtasunak dituzten lau begiraleek Ordiziako AEK-n beren buruak euskalduntzen ibilitakoak dira.

2/ Euskararekiko gure jokaera ez da

inolaz ere pertsona hark bere gutunean erakusten zuenaren antzekoa (intolerante eta totalitarioa), oso bestelakoa baizik. Ez dugu euskara elementu berezitzailatzat hartzen, integratzaile eta aberasgarritzat baizik. Kontutan izan behar dugu, zoritzarrez, egungo egoera linguistikoa ez dela guk nahi bezalakoa eta badela Ordizian euskaraz ez dakien jende mordoska bat. Eta guk nahiago dugu errealitatetik lan egin idealera iristeko, hots, Euskalerrria euskaldunera.

Horregatik euskara inposatzea baino nahiago dugu euskararekiko sentsibilitatea zuzpertzeta bai euskaldun nola euskaraz ez dakitenengan. Horretarako ahal dugun guztietan euskaraz aritzen gara, erabilkera hau baztertzaila bilakatzen ez den arte. Are gehiago diskriminazio positiboa egiten saiatzen gara, neska mutiko askok euskaraz hitzegin ez badezake ere, ulertu ongi ulertzen bait du.

3/ Ez dugu uste jarrera partidistek mesede egiten diotenik euskarari. Euskara arma politikotzat edo norbaiten aurka jotzeko (horra hor geure kasua) ez dela erabili behar deritzogu. Euskara euskaldun guztiok (gazte, zahar, ikasle, langile, apaiz, faxista,...) batzen gaituen edo batu beharko gintuen Ama Hizkuntza izanik tratamendu hobeago baten premia dauka.

Euskararen alde egin daitekeen gauzarik egokiena geure kasuan ez da euskaraz ez dakitenen/egiten ez dutenen kontra jotzea, baizik eta euskaldunok euskaraz eginez euskara hedatu eta ez dakitenei ikasteko premia azaldu. Euskaldun giro jator hori ez da lortzen euskara “arma arrojadiza”tzat erabiliz: horrela lortzen den gauza bakarra euskara elementu bereizle bilakatzea da.

4/ Euskararen mesederako kritika guztiak onuragarriak izan daitezke, era konstruktibo eta jator batetan egiten badira. Zenbaitek erabilitako tonuak orde euskaldun batzuen izaera totalitarista azpimarratu besterik ez du egiten. Bide batez eta GOIERRITARRAK eskeintzen digun tarte honen bidez ordiziar honi, berak ezagutzen duen mutiko hori adin egokira heltzean (13 urte), “sekta” honetara etortzea anima dezan eskatzen diogu, honela Euskalerrria euskalduna lortzeko, tolerantzia, errespetua eta jatoritasuna behar beharrezkoak direla ohartuko bait da mutikoa. Eta gutuna idatzi zue-

na ere etor liteke Balakataklinera, ikus dezan hemen, Ordizian, ez dagoe-la sektarioagorik bere ikusmolde mugiezin eta kadukoetatik irten ezin daitekeena edo irten nahi ez duena baino. Balakataklin *

(* guri ere bost axola zaigu zure izena)

Somalia

Nere izena Maider da eta 12 urte dauzkat. Nere sentimentuak agertu nahi nituzke aldizkari honetan, eta batera, galdera batzuk egin, zuek erantzun ahal izateko. Entzuna izango duzue, Somalia izeneko herri, hiri edo dema. Hango biztanleak, ez dute mai-tasuna, osasuna, dibertsioa... ezagutzen. Beraiek gosea dute, gose asko. Eta hori gutxi bada, jendeak ez die lagundu nahi beltzak direlako. Baina zergatik hori? Ez al gara denok izakiak, nahiz eta azaleko kolorea ezberdina izan?

Imajina ezazue zuek zaretela beraien lekuan zaudetenak eta dakizuela, jendeak ez zaitula lagundu nahi, azaleko kolore ezberdina duzuelako. Ez al zinateke irainduta sentituko? Ziur nago, beraien posturan gustora onartuko zenuketela laguntza. Nere galdera hau da: Zergatik ez dituzte Somaliako biztanleak España edo Euskal Herrira ekartzen?

Asko gustatuko litzaidake testu hau aldizkaratzea, zeren agian honela jendea ohartuko da urrutian badela mai-tasuna behar dutenak eta gu bezalaxe gizakiak direla.

Maider Del Olmo

Erredazio Batzordearen oharra

“Eskutitzak” saila, aldizkarian azal dutako edozein gairi buruz edota interresgarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITARRAKO irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota helbidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura eman beharko dira.


Besteek esana



"Kilometroak 93" Ordizian

"(...) 25 urte betetzen dituen Ikastola honek, Jakintza Ikastolak, ikastolen ingurutik abiatu eta herri osora hedatuz, urtero ospatzen den jairik adierazkorrena antolatzeke ardura hartu du bere gain. (...) Bere jaiotza unetik hasita, garapen aroa igaro eta heldutasun egoerara helterainoko bidean, proiektu bizia izan dela eta oraino dela garbiki frogatu dugu. Proiektu bizi orok eta, gureak bereziki, etengabeko eguneratze, egokitze, berritze eta hobetze lanak dakartza eta behar nagusi hauei egokiro erantzuteko asmoz eskatu genuen Kilometroak 93ko antolakuntza. Beraz, Kilometroak 93 honen helburua, herrigintzan urrats sendo eta berri bat emateaz gain, heziketa alorrean begiztatzen ditugun erronkei aurre egiteko birtarteko eta baliabideez osatzea eta hornitzea izango da."

(Prensa-oharra, 92ko abendua)



Musika mundua osasuntsu

"Gauza asko gertatu dira azken urteetan. Prozesu bat izan da. Gaur egun disketeak inon baino gehiago daude beste edozein herrialderekin konparatuz gero. Galdegin bestela gailegoei, beraientzat hau paradisua da. Krisiak kontzertu kopuruan eta disko salmentan eraginik izan badu ere, osasun onean dago musika mundua. Musika estilo asko jorratzen dira, jendeak ohitura hartu du musika desberdinak erosteko, badago musika zirkuitu bat, kanpoko taldeak ere etortzen dira... Hemen badago azoka propio bat multinazionalen eskuetatik kanpo dagoena eta hori oso garrantzitsua da. Edozein lekutan ez dago horrelako mugimendurik".

Kaki Arkarazo lazkaotar musikaria, "Egunkaria", 93-I-7.



Ezerezeko pesta

"(...) Informatikaren munduan gero eta maizago gertatzen ari da halako edo bestelako produkturen iragarpenak argitaratzea, hari buruzko aurikuspenak plazaratzea, besteekiko konparazioak eta ondorioen ebaluazioak egitea... baina azkenean delako produktua ez da sekula plazaratzen edota, agertzen bada, iragarritakoarekin zerikusi gutxi eta batere ez du. Horixe deitzen zaio 'vaporware'. Gure amona zenak, seguramente 'ezerezeko pesta' deituko zion. (...) Zenbat eta zenbat egitasmo ari dira gure begien aurretik pasatzen, ponpa osoz plazaratu ondoren gehienera maketa hutsa izatera baino heldu ez direnak? (...) Vaporware ezezik kiratsware ere bihurtzen ari da gure hau. Ez al zen bada euskaldun prestuen eredia eta ezaugarria 'lehendabizi, egin; gero, esan'?"

Mikel Aramendi itsasondoarra, "Egunkaria", 93-I-14.



Zure Argazki

D. Unanue, 1 • Tel 88 93 25 • 20240 ORDIZIA

Ostatua

ZERAIN

Tf. 80 17 99

Ba al dakizu...?

⇒ GIZARTEA

□ Denborak esango du zernolako arrakasta duen, baina makina bat espektatiba sortu dituen "Olaberria Hipermerkatua" ireki berri da. Goierriko biztanleen kontsumo beharrak betetzera dator eta 5.000 metro karratu eta parking galanta ditu. 2.000 milioiko inbertsioa egin da istalakuntzetan, kapitala Goxua Fruituak, Aduriz anaiak, Eko eta Aristrainek jarri dute. Hipermerkatuak 200 bat lanpostu sortu ditu. Bertako galerietan, Oyarbide haltzariak, Urrutia kirolak eta Zaldiak (Juanito Rubio sukaldari) jarri dira.



□ Idiazabalgo busa ere hiperretik pasatzen da eta aipatu geroz eta hiri itxura haundiagoak hartzen ari dela Ordizia, Lazkao, Beasain, Iurre, Idiazabal, boskotea.

□ Legorretako Udaletxeko bulegoak ordenagailuz ekipatu dituzte: bi PC. Kultur Etxe berriaren obra-lanak ere etenik gabe aurrera darraite.

□ Gazte langabeentzat urtebete iraungo duten ikastaroak antolatu eta hasi

berri dira Goierriko Langintza Eskolan. Hurrengo lanbidetarako: harotzeritza, gozogintza, ileapainketa, estetika eta automobil konpongintza.

□ Zaldibiako Udaleko Hirigintza batzordeak proiektu asko darabiltza esku artean: kanposantu berria, etxebizitza sozialak, plaza eta Martin Arotzanetik Estankora artekoa. Proiektuak Kultur etxean egon dira eta hori dela eta Hirigintzako Diputatuak bisitatu zuen herri hori.

□ Zaindaria duen Loinatzko San Martinen jaieguna da otsailak 5a Beasainen. 6 eta 7ra luzatuko da jaiaren egitaraua. Odolkia izan behar du egun horietan Beasaingo kaleetan!

□ Beasaingo emakumeen elkarteak den "Asmube"ren emakumeak batzeko proposamenak erantzun onik jaso du. "Mezua emakumeak beren etxetik atera ditezela, hori da aurreneko. Guretzako tartetxo bat erreibindikatzea" besterik ez da beren asmoa.

Han eta hemen dabilta hitzaldiak emanez.

□ "Gipuzkoako Gida Turistiko" xelebre xamarra berrargitaratu du gure Diputazioak, Ordiziako "DV"ren berrie-mailearen esanetan. Mission Media enpresak egin bide du lana eta Tolosaldea sartzeko du Goierri. Ordizia, Beasain, Ezkio, Gabiria, Itsasondo Urolakoak omen gara. Para ver once nacimos!

□ 14 urte bitarteko haurren artean dago gure hizkuntzaren etorkizuna Ordizian. Abenduan eginiko kale neurketen arabera, ordiziarren %34ak erabiltzen du eguneroko harremanetan. Erabilera jeitsi egin da aurreko urte batzuren aldean. Haur eta edadetuak dagozkien datuak itxaropentsuak direla dio Euskara Zerbitzuak.

□ Andoni Aizpurua gabiriar kazetaria (ezagun du irakurleak) eguraldiaren berri ematen hastekotan da ETBn. Kontuz ibili beharko du iragartzen duenarekin! Zorionak!

□ Segurako umeen aterpetxearen funtzioa eten eta honen erabilpenaz aldatzekotan dira Istituzioak. 18. zenbakiko erreportaian adierazi genuen.

□ "Argia", "Ipes", "EKB" eta "Egunkaria"ren bultzagileetako zen Joxemi Zumalabe donostiarra hil eta gero bere errautsak Larraitzen haizatu zituzten lagunek. Ordiziako Gaztañagan izan zen garai batean delinentea. Bertako hainbat euskaltzalek ezagun zuten.

□ Berandu samar bada ere. Eguraldi lehorra lagun zela, jende ugari bildu zen Ordiziako Eguberritako azoka berezira. Errezil sagarren lehiaketan erre-zildar batek eraman zuen 1. saria; 2.a, Beasaingo Arriarango Estefania Albi-suk.

□ Hurrengo zenbakian emango ditugu Ordiziako "Kilometroak 93" eta Jakintza Ikastolaren berriak luze eta zabal.



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

⇒ KULTURA

□Hurrengo hilabeteetan Olga Madina eta Rakek Legorbururen artelanak, Patxi Epelde Ordiziratuaren tailerreko ikasleak, Patxi Morales eta Iglesias beasaindarrarenak ikusi ahal izango ditugu Ordiziako Barrenan. Patxiren anaia den Iñaki Epelde eta Jose Luis Longaronenak ikusi ahal izan dira berriki.

□Ataungo liburutegia gainezka, Iñaki Imaz arduradunak aitortu duenez. Bazkideak ere goraka eta iaz aikatu zuena: akats eta gabeziak: liburutegiaren kopurua eta neurriak.

□Zorionak! Azken GOIERRITARRAn ateratako Ataungo Santageda koplek jakinmina, eskaerak (etorri zaizkigu, bidali ditugu) aipamenak prentsan eta hizpidea sortu dute. Aiako jendeak kantatzen omen zituen osorik baserririk baserri. Legorretan eta beste zenbait lekutan kantatzeko ohitura galdua berreskuratu ote den. Ea ba!

□Ataunekin segiz, Xabier Lete eta taldea izan ziren urteberritan han. Izugarritako hotza izan zen, baina Xabierrek animoak "kaldeatu" zituen bi ordutik gorako jaialdi hunkigarrian. Ludger Mees irakasle alemaniar euskalduna ere izan zen hizlari, Europaren batasuna aztertzen. Ataungo gazteen 7. Kultur ihardunaldien barnean, guztiau.

□Astotxo festa jende-usaiane ospatu zen Lazkaon "Zawopi" astialdiko taldearen eskutik. Nork ez du ezagutzen Egiptorako ihes honen kaleratze eta antzezte hori Gipuzkoan? Bestalde, festetako urtekaria argitaratzekotan dira aurreko Lazkaon, iazkoaren hutsuna eta gero.

□Goierriko Goiztiri-Aek euskaltegiak antolatutako 2. txiste idatzien lehiaketan sarituak izan dira Olaberriako Jose Jabier Amoztegi, Jabier Ruiz eta Joxe Txabarria ordiziarak. 1. lehiaketako txisteak argitaratu berri dituzte.

□Tomas Hernandez Mendizabal donostiar pintoreak (Tolosako Iñauterietako kartelegile izateagatik eta garai batean bere estiloko lan bereziak egiteagatik ezaguna) erakusketa zabal bat paratu du jaioterrian. Itsasondoko landatar batekin ezkondurik dago. Seme bat ere marrazkilaria du.

Zer gerta liteke... Lazkaoko Liburutegiarekin?

Urtezaharrak eta Urteberriak ere berri kezagarri bat ekarri dute komunitateetan: Gipuzkoako Foru Aldundiak Lazkaoko beneditarren liburutegia erosteko asmoa du. Lazkao utzi eta Donostiako "Koldo Mitxelena" kultur zentrura eramango ote den fraideen artxibo zabala.

Komentuko paretak txikiak egin zaizkiela, dokumentazio mordo horrek kondizio hobea egon behar duela (suteen aurkako babesaren aldetik gabezia handiak ditu), merezi duen zabalakunde publiko zerbitzua eman behar zaiola eta

egoera horri nola edo hala aurre egin beharra ikusi dutela bai liburutegiaren arduradunek eta bai Kultura Sailekoek. Liburutegi horren zeharaldaketa, bizi-raupena eta beste ikertuko zituen batzorde bat osatzekotan zela eta aurreko bukatuko den "Koldo Mitxelena" eraikuntzako liburutegia osatzera etorriko liratekeela Lazkaokoak dituen 50.000 liburu eta dosierak.

Lazkaoko Artxiboaren osaketa Juan Joxe Agirreren urteetako lan pertsonala izan da eta harengana jo genuen, iraku-

eritakoak harritu baikintuen. Hark esandakoaren arabera, kazetarien kontu eta zurrumurruak dira horiek. "Hori ez da horrela. Hori fraideen komunitateak erabaki behar du. Bizi garen artean, Liburutegia ez da hemendik aterako". Dirulaguntza dextente handiagoa (10 milioikoa) agindu zaie Beneditarrei aurtengorako eta non enplegatu izango dute: sute eta itute bana



izan dituzte duela hilabete batzuek; katalogatze lanetarako ere beharko dute langilerik. Geroztik "Egunkaria"k ekarri du Diputazioak Lazkaoko pape-
rak erosteko lehen pausoak emanak dituela, negoziaketetan direla. Lazkaoko Udalak Liburutegia dagoen horretan txeko geldidada eskatu du, ahobatez. GOIERRITARRA, bere aldetik, horren alde baita ere: iraun dezala hemen, hemen sortu den aberastasuna.

Erredazioak

Irakur

Egunkaria

Destinuaren gurpilari iheska

Surrealismoa errealitate hitza gainditzeko jaio omen zen eta, halatsu nonbait, lehengo batean, eskolegun arruntari zenbait dis-tira surrealista etorri beharko zitzaizkion nondik edo handik. Nondik eta urrutiko Indiatik hain justu, eta nola eta lepoezurretik txorkatilerainoko tunika laranjatu zarpail banaz jantziriko bi gizasemeen bidez. Ez eskolako tinbrerik eta ez aterik jo gabe, hantxe sartu zitzaizkigun, lotsa guztiak tunikan gorde-ta, gela barreneraino. Orduantxe eten behar izan genuen Hiru Txerritxoen Ipuina, zeren jakina, ipui ezaguna baino dexentez gehiago interesatzen baitzitzaizen ikasle koitaduei begien aurrean zuten panorama bitxia. Izan ere, beren moduko janzkeraz landa, ez al zen txit deigarria ilea ondo-ondotik moztuta zuten buru pare hura ikustea? Eta ez al zituzten ume gizaixoei begiak platerak bezain zabal egin beharko jantzi laran-jatuekiko bi mezulariak, ez si eta ez no, Indiako jende eta parajeen argazkiak erakusten hasi zirenean? Bestalde, ipui-na zela eta ez zela, nire hitz tekela aditu ala tunikadunen "Hare Krisna, Hare Krisna..." dantza eta kanta gozatu, igoa-lekoxea zen ba! Xenpelarren harako hura parafraseatuz, laranjadun komerian-teok ere debalde preparatu ziguten festa, baina Indian jendaki txiro ugari behar gorrian dagoenez, borondate pixarra edukiko bagenu (hots, diru beltza laran-jadunei emango bagenie indiarren es-tuasun gorria leuntzeko) Krisnak guri eskertu eta, gainera, salbamen bidean jar gintezen Samsara liburuaren ale bat oparituko liguketeela entzun genuen ha-rriturik.

Nere baitan dagokeen masokismo-aztarna izkuturen batek jota inondik ere, ia burutik burura irakurria nauzue tuni-kadunek diru truk oparitutako "Samsa-ra, patuaren gurpila" deituriko liburua.

Samsararen mezuarekin egin dut topo lehenbizi. Mezu horren arabera, gure gorputzak zendu ostean, arimak, beti ere Samsararen patuaren legeari jarraiki, izaki ezberdin anitzetan haragituko omen dira berriro, eta destinuaren gurpil horri inork ezin omen dio ihes egin. Neri orde, sinesgogor samarra izaki, bost axola zait hil ondoren, Samsarak hala nahita, gizon, zakur ala asto bihurtu. Kezkatuko ninduke, hala ere, inoren otxokoartotako katixima irentsiaren irentsiz (1728 aldiz kantatu behar baita "Hare Krisna" hori egunero arima sal-batzearen) bizitza honetan astoarena egiteak eta, areago, bizitza honetan izain bilakatu eta kolpe zorrik jo gabe inoren odola xurgatzeak ez lidake batere onik egingo.

Samsara ez omen da gure bi bisita-riengan bakarrik obratuko, hinduis-moaren jarraitzaile denengan baizik. Sinesmen horrek espantatzen bazaituzte ere, ez nau ni gutxiago harritzen hin-duismoak sorturiko amalgama bitxiak. Inon egotekotan Indian baitago jainko mordo, mito ugari, errezo, otoitz eta plegaria mota anitz, kontaezinezko himno, sakrifizio eta konjuruetarako irakaspen oparo... Amalgama horren argitan, bestalde, ezin konta ahal sekta, eskola eta korrante erlijiosoak aurkitzen bide dute atsedena. Seguruenera, Brahma jainko kreatzailearen aditza izango duzu; beharbada, munduan da-goien guztia Visnuri esker kontserbatzen dela jakingo duzu; eta agian, Sivaren lana hau zigortu eta bestea suntsitzea dela entzungo zenuen inoiz. Baina jain-ko nagusien hirutasun hori ezaguturik ere, nork ote du Indian dauden 33 milioi jainko txikien berririk? Nor ote da gai milioika jainko horien ahalmen, atri-butu eta eginbeharrak zertan diren jaki-teko?

Denena jakitera iritsi ezin, eta jainko bakar baten berri pi-ttin bat, gure bi me-zulari laranjatudu-nen Krisna jainkoa-ren berri hain zuzen ere, jakin nahi izan dut, horretarako, lehen esan bezala, ai-patu fedezko katixi-ma leituz. Horko "Animaliek ez dute ikasten" pasartea

irakurtzeak ez dit sosegu handirik eka-rriri. Hortxe konbentzitu erazi nahi baiti-gute edonongo eskoletako ikasketek ez dutela tirrit ere balio. Zertarako presta-tzen gaituzte Unibertsitateek? -diosku liburuak- Eguneroko ogia irabazten ikasteko? Animaliek ere, Unibertsital-titulurik gabe badakite jan-edana lor-tzen, lo egiten, beren buruak babesten edota arrak emea estaltzen. Eskolek, Jainkoarekin nola bildu irakatsi beha-rrean, animalien pare izaten irakasten digute, animaliek berez dakitena guri eskolek irakatsiz alegia. Beste pasarte batean gogor lan egitea alfer-lana egitea izan daitekeela diote: "Larrialdiak sor-tarazten dizkit zentzuak asetzeko, eta ez bestetarako, horrenbesteko lan egiten duen jendeak". Krisnak asetzen duenak ez bide du lan egin behar handirik izaten. Hurrengo lerro batean kontseilu bikaina damaigute Indiako goseak asetzeko: ez beza inork abere eta animaliarik akaba! Hauexek dituzue euskaratutako hitzak: "Badaiteke norbaitek abereren bat hil eta jatea. Hala balitz, ondorengo bizi-tzan, norbait hori behi edo ahuntz bihurtuko da, eta behiak edo ahuntzak delako gizon hori jango du". Adierazi-takoez aparte, beste hamaikatxo arau eta sententzi bitxi gehiagoz josiriko katixi-ma duzue Krisnaren jarraitzaileena.

Prestatu ziguten debaldeko festa go-rabehera, A. Bretonek ez lituzke tunika laranjadunak surrealista zintzotzat har-tuko. Surrealismoak, Andrek nahi izan zuenez, gizarteko balore kultural, moral eta zientifikoak berriro eta hobetzeko balio behar baitu, eta ez "deusik behar ez duen gizona" bezalako filosofia mer-keak hedatzeko. Bukatzeko, esan, hainbat naziotako parlamentuek argi eta garbi azaldu dutela jadanik zeintzu di-ren inori kaltegarriak gerta dakizkio-keen sekta: Batasunerako Eliza (Moon), Bagwan Shree Rajneesh, Hare Krisna, Zientologia-Dienetika Eliza, Meditazio Transzendentala, Amanda Marga, Jainkozko Argiaren Misioa eta Jainkoa-ren Haurrak edo Maitasunaren Familia. Sinestea libre duzue, baina zer gerta ere, haxe nere plegaria: goarda zaitzaten zeru-lurrek jainko eta jainkosa merke guztietatik!

Xabier Gartzia



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Irakurleari:



Goierriko hurrengo Udalak, gutxi/asko, euskara, kultura, informazioa eta GOIERRITARRAren alde aritu dira 3 urtetan, gutxien-gutxieneko diruz lagundu dute gurea:

* Aramako Udala

* Altzagako Udala

* Beasaingo Udala

* Ezkio-Itsasoko Udala

* Gabiriako Udala

* Gaintzako Udala

* Idiazabalgo Udala

* Itsasondoko Udala

* Lazkaoko Udala

* Legorretako Udala

* Olaberriako Udala

* Ordiziako Udala

* Ormaiztegiko Udala

* Zaldibiako Udala

* Zeraingo Udala

Egia da gainontzeko Udal gehienek ere (Ataun, Segura, Zegama), agindu dutela, hiru urte eta gero, sartuko direla GOIERRITARRAren Aldi Berrian (Tirada haundiagoko hamabostekaria, langile kontratudunekin, herrietako berriekin, premiazko milioietako aurrekontuekin, Udalen partehartzearekin, e.a.). Bienbitartean, Goierriko udalek eskatu ziguten Proiektua idatzi eta entregatu dugu, baina gauzen egoera geldiune batean dago, politikoen konponezinengatik (?) edo. Hiru urte eta piku daramatzagu lanean eta zai, eman eta eman, baldintza eskasetan baina makineria prest. Zergatik ez da konpontzen GOIERRITARRAren arazotxo osoa? Onartuko al dira aurkeztutako eskakizunok?

Euskal prentsa lokalari lekua egin diogu. Diru-prolemak egon dira tartean eta gehiago dagoenean aldizkari hobe egingo da. Izugarri estimatuko genuke GOIERRITARRAren Aldi Berria berehala gauzatu eta estrinatuko bagenu. Leiho berri gehiago irekitzeko irrikitan gaude Goierriko, goierritar eta kanpotar irakurle horren mesedetan.

Guk langile gehiago behar ditugu aldamenean, kondiziotan aritu, eskualdeko jende-mota oso ezberdinentzat egiten dugu hilabetekaria, hamabostekaria dugu beharrezko, e.a., e.a.

Euskaltzaleek esan dute eta Goierri berak ere esan du dagoeneko: behar duela GOIERRITARRA berri eta sendotuaren aldia.

Zeren, "Euskararik gabe ez da etxerik jasoko; ez da hemen gizarterik osatuko; Euskal Herria ez da bizitzeko leku on bat izango"

(Bernardo Atxaga)

"Hemen euskaraz ez dakienak berak jakingo du zergatik ez dakien. Baina hemen euskaraz ez dakienak ez digu uzten euskaraz egiten. Baina eta hemen euskaraz jakin arren euskaraz mintzatzen ez denak ere ez digu uzten euskaraz egiten"

(Bitoriano Gandiaga)



Erredakzioak

Idiazabalgo etxe-izendegia dela eta

Idiabaldar mordoxka batek honez gero badakienez (ez zaie alferrik denbora galerazi hau eta bestea galdetzen) herriko etxeen izenei buruzko azterketa bat egin da 90 eta 91an zehar eta ikastaroa 92an. Izenen gaineko azterketa hori ezagutzen ez dutenek ere, bera- ren ondorioak behintzat ikusten ha- siak izango dira: hor dituzte etxee- tako ategainetan idatziak.

Baten batek esango du, ea zertarako behar diren horrelako gauzak, berak ezagutzen dituela eta Idiazabalgo ba- serri guztien izenak eta baita bakoitza non dagoen ere. Zo- rionak zuri. Baina lan hau ez da horrelakoei begira egina, kul- tura "modernoaren" zurrunbi- loan, munduan gertatzen diren gauza garrantzitsuetan burua galduta darabilenarentzat bai- no. Edo, zuzenago esateko, lehenagoko izen horiek gaur- kotu eta mundu modernoan sartzeko. Esan nahi da gure garaian izenak ez direla hizke- tan bakarrik erabiltzen; ida- tzizkoak gero eta pisu eta leku handiagoak hartu ditu eta egokitu egin behar ahoz baka- rrik ezagutzen zirenak ere, horrelakoe- tan txukun jartzeko.

Leku-izenen korapiloak

Zer behar da egokitze-saio horreta- rako? Lehenik eta behin, azken men- deotako historian barrena, etxe bakoit- zak ezagutu dituen izangorabeherak garbitu, gertatu baita aldaketa franko. Gaur egungo "Katea" k, konparazio ba- tera, lehen bestelako deiturarik izan duela dirudi; "Zubiondo" izan bide zen egin zutenean, "Arraizenea" eta "Kan- toikoa" ere, "Elizpuru" eta "Elizazpi" izan ziren beste sasoi batean.

Gure garaian bertan ere, ageri dira nolabaiteko bikoiztasunak zenbait etxeren izenen inguruan eta batzutan herritarrek erabili ohi duten deiturak ez du zerikusirik "benetakoarekin"; ho- rregatik, paper ofizialetan ageri den "Bidaurre" baino ezagunxeagoa dugu, inondik ere, "Erremintariarena"; "Etxeberrialtzo" deitura erdi-galduaren orde, berriz, zenbatak ez ote ditu (ez behin bakarrik) nagusitzen ari zaizkion "Zepai" edo "Zepairena" erabili? Ez da hemen kontatu eta masiatzekoa tabe- na-giroari eta plater beteari diogun afi-

ere ezagunak direla kale-etxeen izen ho- riek eta beste asko ere; norentzat esan behar. Bere etxeko gazteagoren bati "Torre" n orain nor bizi den edo "Arrai- zenean" eta "Ubitarte" n zer obra egiten ari diren galdetzean ohartuko da egiaz zer den ezaguna eta zer ez.

Gorabehera eta aldaketa guztiok, beste ezer baino lehen, aldiari aldiko jendearentzat adierazgarri gertatu diren izenen nolakotasuna ageri dute. Izenen kontu hauetan, asko ala gutxi, herrita- rrek bere gogo eta gutziak erakutsi ohi dituzte; izenak ez dira kasualitatez eta

beste gabe jarri izan, gizabana- koaren nahiz gizataldeen egu- neroko bizimoduan nolabai- teko esanahia zuten xehetasu- nak agerian uzteko baizik. Beste hitz batzuetan esateko, etxeen izenak herri-kulturaren agerpideetako bat dira. Ho- rregatik, zenbait deitura min- garrik "ofizialaren" gainetik lortu duen nagusigoa, etxe horietakoek edo etxeek berek jendearen aldetik jasan zuten burla-gogoaren erakusgarri dugu (Auzokalte, Artagose, Orrexpalego...). Ezdira, ez, sesio eta ezin ikusiak falta izan



bazterretan. zioa, baina jakina, jendeak etxe horrek egiaz tiragarri duenari begiratzen dio, etxe osoa izendatzeko garaian ere.

Izen-aldaketen inguran gabiltzala, esan behar inoren gogoetan ezeren az- tarnarik gabe desagertu edo ia erabat ahaztuta geratu diren etxeen izenak ere berrekarri ahal izan direla gurera (Etxe- berri txo, Sastre Etxea, Albitsu txikia, Zabarainzelai edota Ola zaarra, adib.). Ezin aipatu gabe utzi gainera lehen ka- leko etxe bakoitzak ere bazuela bere izena (Errekaarte, Ugalde, Bikuña, Giona, Zubimusu...), nahiz eta orain galduxeak izan. Baten batek esango di- zu (arrazoi osoz, seguru asko) gaur egun

bazterretan.

Sesioak eta gauza okerragoak badi- tugu gaur ere, baina (beharbada horre- xegatik) etxeen izen berriek halakoez libratzeko konjuroak dirudite (Leku Alai, Toki Goxo, Gure Txoko, Kabi Alai...). Kanpokoa ez dadila barrura sartu, behintzat. Bitxitasunak bitxita- sun, izenen forma egokia aukeratzea ere ez da gutxiagoko lana. Gure garai hone- tan erabiltzeko deiturarik aproposena zein litzatekeen erabaki eta gero, fone- tika eta ortografi arauen argitan jarri eta eman behar da izen bakoitza; guk esan ohi dugun "Txomenane" ren abiapun- tuan "Txomenarenea" daukagu eta

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50

88 23 54

88 11 92

88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

"Ojarbi"ren sorburua "Oiarbide" baino ez da. Begiarentzat bitxi samarrak gertatu arren, ahozko ebakeran ez dute halako alderik, izan ere, mintzatzean gehiago nahastu eta aldatzen baitira soinuak (ikus eraberean, Marzelagi, Irurre Errotea, Albitsu aundia, Atsisain, Etsegarateko Bentea e.a.).

Forma-egokitze hau, euskararen inguruko hizkuntzek aspaldi samar burutua duten bidea egitea baino ez da, beraz. Adibidez, esan, andaluziar batek "Granada" esango dizun arren (ez dago graziarik gabeko andaluziarrik) eskribatzeko garaian "Granada" artez jartzen ez duenari, auskalo zer ez dioten botako.

Izenen balioa

Izanak izan eta izenak izen, uste dut (kezkarria izanik ere, nola ari den gertatzen) izenak aldatu edo galtzea baino aurreragoko arazoak badirela. Kontua ez dela formalismo hutsezkoa, alegia.

Izenok, gure garaiko jendearentzat galbidean daudela aitortzea, egia zor zaiona ematea da, baina ez nahikoa. Izenekin batera, izen horien eta kultura horren inguruko mundua ari da hiltzen. Jende gutxi bizi da lehenagoko baserrietan eta, kalean, egungo etxe-blokeek ez dute lehenagokoen nortasuna; zenbaki bat jarri eta kito. Ez dagozkio halako familiari edo izen handiko beste gizon zeblebre hari.

Gauzak garbiago esateko, apostu egingo nuke, baietz jende gehiagok jakin herrian Richardson nor den (Indurain, zer esanik ez, etxe gutxietan faltako da eta beraren erretratoa) Kamine-ro Etxea non zegoen baino... Esan nahi baita, ia zoratu beharrean ibili garela britainiar horrek baloiari ostikoak tajuz emateko hemen zer falta zuen galdetu, eztabaidatu eta (nola edo hala) lagundu nahian ere eta, gehienok, ez dugula ezertarako jakin behar, Kaminero Etxea

zer zen, non zegoen edo kamineroek nolako erremintak zituzten. Nork esan behar zion, auskalo zein herritakoa den futbolariari, Idiazabalen peña eta guzti egingo ziotela? Eta ez esan, Richardsonena ere inportantea dela, astelehenetan lanera goazenean eta hamaiketako egitean horretaz mintzatzen garela; beste hark esan zuen bezala, "gure etxeko ardiek ez zuten, Richardsonentzako gazta zelako, esne hoberik ematen". Joan zen eta utz dezagun bakean.

Edozein gaztetxok esango dizu, bestalde, "Barricada"ren kantaria "Dro-



gas" dela, baina zenbatek ote daki non goa den Joxe Korta?

Alferrik da esatea beste erremediorik ez dagoela; telebistaren botoiari behartuta eragiten diogula edo gimnasia egitera joaten ez bagara hurrengo egunean ez dugula gosaririk izango. Geuk hala nahi dugulako da.

Geurea galtzen ari bagara, ez da kanpotik kendu edo beste zerbait hobea eskaintzen digutelako bakarrik. Etsipenez edo arintasunez, ez ikusia egiten diogu orain arteko kultur moldeen gainbeherari. Baserriak berak galtzen ari diren bezala dihoazkigu beren izenak ere: mendibazterretako deitura asko ia erabat galduak dira gehienontzat. Alferrik, beharbada, hemendik urte batzutura inor bere sortetxearen izenarekin lotu eta identifikatu nahi izatea.

Hasierako hariari berriro helduz, entzungo duzu, hobe dugula ondare hori bertan behera galtzen uztea, ezertarako ez duela balio eta; hala bada, arrazoi-faltarik ez. Izenak izana behar omen du eta etxeizen dotore horiek paper garestian edo liburutzar batetan oso txukun jarriak edukita, hildakoak kanposantuko zuloan bezala daude.

Gehienara ere, euskararen galbidea ikusirik, garai bateko apologistak, gure hizkuntza besteak baino lehenagokoa eta guztien jatorrizkoa zela frogatzen saiatu ziren bezalaxe egingo dugu guk ere. Alferreko saioa (kalterako, gainera) zen, ordea; "Barcelona" eta "Castilla"ren jatorrian "bart ze lo ona" eta "ke asto illa" daudela esartez, euskararen gailentasuna erakutsi eta lekuri garaienean jarri uste zuten. Zertarako, ordea? Negu hotzean ezin hasiko gara paparrean eramateko ikurrik politena zein den begiratzan; txamarrarik gabe bazoaz, hotzak akabatuko zara. Zarpailtsu zabiltzala zaharrekin? Konpondu ala aldatu.

Baliteke, bestela, gure ondorengoek ere barre egitea, ezertarako balio ez diguten gure lehenagoko etxe-izenak (eta gure hizkuntza bera) traste zahar galduen museoan horrela gorde nahi baditugu; horretarako izanik, gure herria eta gure etxeen izenak nola ziren galdetzen ibiltzea denboragaltze tristeena litzateke.

Gure zoriak, ordea, ez du bestelako biderik. Geroan zerbait izateko, lehenari heldu behar. Aukeran dugu (alde batetik) galbidean daukagun tradiziozko mundua ezagutu eta, behar ditugunak zaharberrituz, etenik gertatu geureganatzea ala (bestetik) galdu den zerbaiti nostalgia eta minez begiratu eta omenaldiak eginez bizi-hiltzea.

Antonio Berasategi



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak

- Fotokopiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

KOIOTE TABERNA

Taberna berria eta Giro berria

Zaldizurreta kalea — Tel. 16 07 23 — BEASAIN



IRVROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA



B i O K , c . b .

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

KATTALIN

ERRETEGIA - SAGARDOTEGIA

*Sagardoa
txotxetik*

Antzizar Auzoa, 4, "Biona" etxea. (Polideportibo
ondoan) TEL. 88 92 52 BEASAIN



Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK A AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi

tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



Gudarien Etorbidea - Tel. 88 39 60
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Goierriko euskaltzaleak ez gara gutxiago izango

Beasainen euskara bultzatzeko elkartea bat sortzeko asmotan dabiltzala jakin dut, eta jakin bezain laster berri pozgarri horren harian zertxobait idaztera animatu naiz. Lehen lehenik, horrelako zerbait aurrera ateratzeko bildu direnei **zorianak** eman nahi nizkieke, eta Beasaingo euskaltzale guztiak **animatu** bakoitzak ahal duen neurrian parte har dezan.

GOIERRITARRAren orri hauek aprobetxatu nahi nituzke, halaber, **beste herrietara** ere dei bera luzatzeko. Guztietan etorriko litzateke ondo horrelako zerbait, baina batipat hazientsuenetan (Ordizia, Lazkao). Badakit norbaitek pentsatuko duela: "Ez al dira ba Jaurilaritza, Udalak... horretan aritzen? Ez al da ba egoera asko hobetu?". Eta bai, egia da azken urte hauetan lan asko egin dela, eta egoerak oro har hobera egin duela. Orain 30 urte pentsaezinak ziren gauzak baditugu: administrazioan, irakaskuntzan, irrati-telebistan... Baina aitortu beharrean gaude beste **zenbait sektoretan** gure arrakasta ez dela hainbesterainokoa izan (lan mundua, kaleko erabilera...). Zergatik hori horrela?

Arrazoiak, beti bezala, konplexuak dira, eta ez nuke hemen gehiegi luzatu nahi. Aipatu beharko genuke, batetik, egoera hau neurri batean behintza eraman den **hizkuntz plangintzaren ondorio** izan daitekeela. Aginte Publikoetatik berreuskalduntzea planteatu zenean, behineneko lan-arlo batzuk markatu beharrean aurkitu ziren. Administrazioari, irakaskuntzari eta komunikabideei egokitu zitzaizen leku hori. Horiek zeuzkan bere agintepean, eta horietan eskuharrezakeen errazen. Uste zen horiek euskalduntzeak ia automatikoki beste arloak ere atzetik ekarriko zituela. Baina errealtatea bestelakoa azaldu zaigu.

Jakina, ez da hori arrazoi bakarra. Euskara ikasteko motibazio ideologikoa, garai bateko suhertasuna epeldu ondoren, pixakanaka desagertuz joan da. Euskara lane-rako bakarrik nahi duenarekin ez da emaitza onegirik lortzen. Erdaldunek ez dute euskararik behar eguneroko bizitzan. Eta euskaldun askok berriz... Esango nuke, oro har, gizabanakoak ez duela euskara ikasteko eta erabiltzeko behar adinako **gizarte-presiorik**. Hizkuntza baten aldeko gizarte-presioa elementu askok egiten dute: komunikabideek, bizitza publikoan duen presentziak, legeak, ideologiak, faktore psikologikoez, hiztunen jarrerak, inguruko hizkuntzak, komunikaziorako beharrak eta erabilgarritasunak... (gaztelararako, lege-agindua gain gizarte-presioa ere bada). Ahulezia horretan, gainera, ez dut uste

euskaldunon arteko etengabeko liskarrek beste ezerk baino zeresan gutxiago izan dutenik.

Arrazoiak arrazoi, kontua da berreuskalduntzearen abiada askok nahi baino motelagoa dela eta zenbait arlotan oso gutxi egin dela aurrera. Eta hori izan da, hain zuzen ere, Euskal herriko zenbait herritan (Arrasate, Tolosa...) euskara bultzatzeko elkarten sorreran egon den analisia: "Gaur egungo euskalduntze prozesuak oraindik hutsune nabarmenak ditu eta aginte publikoek ez ezik **gizarteak** ere parte hartu behar du lan horretan. Ahal den jende guztia-
ren partehartzea eta adostasuna bilatu behar da. Sor dezagun, bada, orain arte ailegatu ez garen lekuetara ailegatu ahal izateko nolabaiteko **lanabesen** bat".

Abiaburu asmo hori zutelarik sortu dira, esan bezala, Euskal Herriko hainbat eta hainbat elkarte. Gainera, zenbaitek dioenez, euskalduntzearen dinamika luze honetako **urrats logiko** bat besterik ez dira: une historiko bakoitzak bere garaiko baldintzei egokitutako erantzunak eskatzen ditu. Diktadura garaian euskara bizitza publikotik debekatua zegoen eta euskaltzalegoak orduko behar larrienei erantzun behar izan zien: ikastolak, gau eskolak, e.a. sortu ziren. Baina gaur egungo erronkak desberdinak dira. Gaur egungo erronka nagusia **euskara gizarteratzea** da, jendea euskararen ezagutzatik erabilerara eramatea. Eta ahalegin horretan, euskararen gizarteratze prozesu horretan, azken urte hauetan agertu diren lanabesik egokienezkoak Beasainen sortu asmoz dabilzan elkarte horren antzekoak dira, inolako zailtzarik gabe. Batetik, ideologia guztietako euskaltzaleak biltzea lortu dutelako, eta bestetik, gizartearen inplikazio handiagoa dakartelako eta lanean ari diren herrietan euskararen aldeko dinamika biziago bat sortu dutelako. Horregatik, uste osoa daukat **Goierriko euskaltzaleak** ez garela beste eskualdeetakoak (Deba Garaia...) baino gutxiago izango, egoera berri honetara egokitzeko gai izango garela, eta beasaindarrek dagoeneko egin duten bezala, bakoitzak geurean, geure beharren eta indarren arabera ekimenak bultzatuko ditugula.

Horrez kanpo, Beasainen sortu nahian dabilzan elkarte hori aitzakitza harturik beste gogoetatxo bat plazaratu nahi nuke. Horrelako elkarte gehienek ispilu Arrasateko AED izan dute. Hango arrakastak iratzarrik eta animaturik hasi dute askok eta askok beren ibilbidea. Esan bezala, herri dextentetan sortu dira horrelako elkarteak, eta nik itxaropen osoa dut gehiagotan ere sortuko direla. Baita Goierri ere. Baina, nire ustez, Arrasaten asmatutakoa gure

beharretara zertxobait **egokitu beharrean** izango gara. Herrian herriko ekimenak eta plangintzak guztiz beharrezkoak dira. Hori ez du inork ukatuko. Baina beharrezkoak eta ordezkazekin izan arren, iruditzen zait gure ahaleginak ez genituzkeela maila horretan agortu behar, **goragoko maila bat** ere begiratu beharko genukeela. Nik Goierri mailako plangintza ere (edo lankidetzak, edo auskalo zer) beharrezko ikusten dut. Eta uste dut badiela horretarako arrazoiak. Egia da gaur egungo gizarte-unitaterik garrantzitsuenetakoa herria dela (gero eta gutxiago), eta hizkuntza eta gizarte banakizina direnez, berreuskalduntze ekimenek nahitaezko dutela herri mailan jardutea. Baina horrez kanpo badugu hemen, nere ustez, **gizarte-unitate handiago bat** ere: Beasain-Ordizia ardaztat dituen gizarte unitatea (hots, Goierri). Herri txikiagoe-takook gure horretara jo behar izaten dugu mila eginkizunetarako, han burutzen dituzte ikasketak gure gazteek, han biltzen dira asteburuetan, han daude industriarik nagusienak... Berreuskalduntze politika izartek benetan duen egiturari egokitu nahi badiogu, enbait gai nahi eta nahi ez **eskualde ikuspegi** batetik planteatu beharko dira. Gazteentzako kanpainak prestatzeko, euskalduntze-alfabetatze ikastaroak antolatze-ko, komunikabidegintzan abiatzeko, industria munduan ezer pentsatzen hasteko, Arrasateko Hitzarmenaren moduko bat aurrera eramateko edo horrelako beste mila gauzetarako herri txikiek handiagoe-kiko elkarlana ezinbesteko dute: bakarrik ez dute behar adinako pisurik, handiagoe-tan gertatzen denak erabat baldintzatzen ditu eta beren "hizkuntz askatasuna" bera ere oso erlatiboa da. Eta handiagoei ere ondo baino hobeto etorriko zaie euskaldunago diren txikiagoe-n partaidetza. Bakarka ahulegiak gara zenbait egitasmo aurrera eramateko, eta eskualde mailako lankidetzarekin indarrak askoz hobeto aprobetxatuko ditugu.

Badugu, gainera, oso hurbileko adibide bat: GOIERRITARRA aldizkaria bera. Horregatik, sortzeaz dagoen Beasaingo elkarteari, etorkizunean sor daitezkeen beste herrietako "balizko" elkartei, gaur egun martxan dauden Udaletako Euskara Batzordeei eta helburu bereko erakunde guztiei nere **kezka** honen berri eman nahi nieke: berreuskalduntze arlo honetan ere Goierri mailako lankidetzak behar beharrezko ikusten dudala, eta oraindik oso gutxi egin dugula bide horretan, oso gutxi garatu dugula alor hori.

Eta besterik ez. Zorte on beasaindarroiei.

Iñaki Amundarain


Enirio-Aralarko Batasuna

Kontu izan behar dugu lur komunak ez direla Euskal Herrian bakarrik, European zehar ere oso garrantzitsuak izan dira eta erromatar jabego eskubidea ez da ezarri Frantziako Iraultza eta XIX mendera arte toki askotan.

Herri lurretan bi eratakoak bereizten dira, herri batenak direnak eta Partzoneriak. Gipuzkoako lur amankomunitan Aralarkoak dira garrantzitsuenak 3.500 Ha. baitituzte. Sail hauek historian zehar eta gaur egun ere izen askoz ezagutu dira: "Bozue Mayor", "Bozue Menor", "Union de Enirio-Aralar y Realengo", e.a.

Bere sorburua Historia aurreko garaietan bilatu behar dugu, batez ere Neolitiko eta Brontze garaian bertako trikuharriek adierazten digutenez. Historian ia lehenengo dokumentua, Enrike III Trastamara Gaztelako erregeak Juan Amezketaoari lur hauetaz eginiko emaitzarena. Baina "Bozue Mayor" osatzen zuten eta duten herriak (Amezketak, Abaltzisketa, Orendain, Baliarrain eta Ikaztegieta) aurka jarri ziren. Baita "Bozue Menor", edo Ordiziako Unioa deituak (Ordizia, Ataun, Beasain, Lazkao, Legorreta, Zaldibia, Itsasondo, Arama, Altzaga eta Gaintza). Honela gauzak "Convenio y ajuste" bat ospatu beharra izan zen bi elkarrekin eta D. Juan Amezketaoaren artean 1409 urtean Ordiziako idazkari zen Martin Ibañez Aranbururen aurrean, 1.400 florin Aragoako urrezkoak emanez bi elkarrekin, erdibana, J. Amezketaoari.

Gorosabelek dioenez, ba omen dago beste dokumentu bat Nafarroako Santxo Azkarrak 1027 urtean emana eta larre-lur hauei dagokiena, baina ez da aurkitu. J. Amezketaoari ordaindutako florin haiek, nahiz bi elkarrekin erdibanaka ordaindu, gero, herri bakoitzak ez berdin ordaindu eta horren arabera kontsideratzen dira baso hedadura ezberdinen jabe: Amezketa bere elkarrekin herena, Abaltzisketa beste hain-



beste, Orendain seiena, Baliarrain hamabiena eta Ikaztegieta hamabiena. Ordiziako elkartean honela banatu ziren kargak eta horren arabera Lazkaok elkarrekin basoen zazpirena du, eta Ordizia, Legorreta, Itsasondo, Gaintza, Zaldibia, Beasain eta Ataunek, Altzaga eta Aramak zortzirena.

Zatiketa hau 1821ko azaroaren 22an egin zen Abaltzisketako Suegi inguruan Amezketa eta Ordiziako idazkariaren aurrean (Miguel Inazio Agirrezabala eta Esteban Gaztañaga). Elkartasun barruko herritarren eskubideak hauek dira: belardietan beren artaldeak lasai larratzeko eskubidea eta behar adina ur hartzekoa. Baita sutarako egur igarrak hartzekoa eta beren txabolak konponatzeko nahiz berriak egiteko behar adina egur hartzea mendizainak markatu ondoren. Ordainez zerbait ordaindu behar zaio mankomunitateari. Ohar garrantzitsua: 1855ko Madoz-en Desamortizazioan, Aralar ez zen saldu, "de utilida publica" deklaratu izan zen, 100 Ha. pago baino gehiago zituelako. Jakina da desamortizazio honetan galdu zirela herri lurrik gehien Espainia mailan. Baina, esan bezala, 1821an banatu ziren basoak sei zatitan, eta hor hasi ziren arazoak.

Orduan pagoak Pardarri eta Urrain arte iristen ziren Nafarroako mugatik barrena. Baina gaur Maizegi errekatxo bitartean iristen dira bakarrik. Ho-

netan erru handia izan ohi dute artzainek, ikazkinek eta baita zenbait Udaltek ere (Lazkaokoak adibidez), arbolak bota eta ez baitute berririk sartzeko politikarik izan. Zenbait oihaneztatzeko saio atzeratuak izan dira, gainera. Honela, Unioak 1911 urteko urriaren 16ean, 1821 urtean banatu zuhaitzen esparrua ixtea erabaki zuen (1.000 Ha. inguru). Urte berdineko abenduaren 16an itxiera hau zatika egitea erabaki zen artzantza ez kalteztzeko, basozainak hautatuko zirela zuhaitzak zaintzeko, eta zerga bat jarri zen bai abere bai txabola bakoitzarentzat. Akordio honen aurka jarri ziren Ataun, Amezketak, Abaltzisketa, Gaintza, Lazkao eta Zaldibiako ordezkariak. Errekurtsoek 1912 urtea arte atzendu ziren Diputazioan. Urte honen azkenean Gipuzkoako Foru Aldundiak bere oihaneztatzeko plana azaldu zion Unioko Batzordeari. Azken honek egitasmoa onartu zuen, baina Abaltzisketa, Amezketa, Gaintza, Orendain eta Zaldibia aurka ziren. Kejaka zeuden, askarik egitea ez zela pentsatzen, ez eta bide edota itzal-unerik eta hogeiki familiar porrot egin behar zutela zioten. Mindegia, baso etxe bat e.a. egin ziren baina azkenik utzi beharrean gertatu zen plana. Gauzak horrela, siderurgia-rako egur-ikatz eta kablez egur ateratzekoak jarraitu zuten, batez ere 36-39ko gerra ondorengo autarkia garaian.

Bukatzeko, 1979ko abenduaren 10ean 15 herrietako alkateek Foru Aldundiari ikerketa bat eskatu zioten ekologia, artzain eta herrien interesak batu eta babesteko asmoz. Honela jarri dira martxan geroztik hainbat akordio: ahuntzen debekatzea, bainuontziak ardi gaisotuentzat, ur-hornidura eta askak, txabolen konponketak, zenbait bide, ardiaren kontrola, belardien hobekuntza, landareentzako mindegiak, baso-oihaneztaketak, e.a.

Txomin Sukia

PELUQUERIA

Matxain

ILEAPAINDEGIA

Zumalakarregi, 1

Tfnoa: 88 79 63

ORDIZIA

Buruazaleko tratamenduetan azken teknologia:

- Laser
- Kiromasaia
- Digitopuntura
- Bibraterapia,
- e.a.

Palacin

KIROLAK

Neurriko bizikleten salmenta konponketa eta montajea

Urdaneta 56 • 16 11 97 ifnoa • ORDIZIA

GOIERRIKO PELOTAGILE EZAGUNAREKIN SOLASEAN

Prudentzio Jauregi: “pelotak egitea samurra den arren ondo egitea erabateko zaila”

Prudentzio, 74 urteko zaldibitarra, Lazkaon bizi da aspaldian. Hamar urtekin Nafarroako eskolan hasi zen pelotagintzan, harrezkero makina bat egin ditu, bai “fabrika haundian” lana egin zuen bitartean, baita jubilatutako ondoren ere. Lehen hainbat frontoi profesionaletan bere pelotak erabili bazioren ere gaur egun “hobby” modura haurrentzat egiten ditu.

“Lehen profesionalentzat egiten nituen pelotak baina orain lasaia nabil denborasartatzat hartzen bait dut. Gainera hemen ez dago material egokirik, ona izateko Pakistandik zuzenean ekarri behar da, inguru hauetan aurkitzen dena flojoa bait da.” Oraindik frontoietarako eskariak baditu ere utzita dago, batez ere haurrentzat egin eta gazteei erakusten aritzen da. Ordizia, Beasain, Tolosa, Zumarraga eta Arrasaten ikasle bana dauzka Prudentziok.

Pelotak egiteko prozesua

Lehen Txinatik ekarritako kautxoak erabiltzen zen kiska edo oinarria egiteko, ebaki eta tiratan jarritz. Garai batean esaten zen katu estea ona zela baina horiek lelokiriak omen dira. Duela 40 urte inguru, prozesu berri bat ateratu zen, latexa, hau Venezuela, Filipinak, Pakistan eta horrelako lekuetan aurki daitekeen arbola baten erretxin modukoa da. Lehenik kristalaren gainean zabaldu, lehortzen utzi eta ondoren tiratan moztu, hauek kanikaren inguruan bilduz kiska osatzen da. Honi gainetik artilea jartzen zaio, gero diametroa neurtu eta pisatu egiten da biak

proportzio batean egon behar direlako. Ondoren kotoia jarri eta ahuntz larrua josten zaio.

Barruko kanikak ezpelezkoak edo plastikozkoak izan daitezke, azken honek esku pilotarako “toke” hobea du. Erremonte eta zesta puntan pelotari indar handia ematen zaionez kanika ez deszentratzeko kiska goma hutsez egiten da.

“Egitea oso samurra den arren, ondo egitea erabateko zaila, batzuetan gutxi estutu, besteetan asko...” Lan prozesuaren baitan dago pelota bakoitzaren izaera: sendo egin ezkerro sake txikia egin baina asko tiratzen du; kiska handiagoa eta gehiago estututa, biziagoa ateratzen da pelota; motelagoa berriz gutxi estututa.

Prudentziok egunean zortzi bat ordu ematen ditu lan honetan, haurrentzako pelotak eguneko 10-12 egiteko gai da, profesionalentzako berriz bizpairu.

Pelotagile eta pelotazale

“Pelotari onak datoz, hurrengo txapelduna, Galarzaren baimenez, Beloki

izango dela uste dut.” Eugi aurrelari bezela oso ona izan arren, frontoi osoan Beloki hobe ikusten du. Atzetik, Segurako Imaz, koka eta abar onak omen datoz.

Orain dela urte batzuk gazterik azaltzen ez bazen ere, orain goraka doa pelota. “Telebistak mugitu du mundu hau baina batez ere monitoreek. Hauek ibili dira batera eta bestera eta hainbat ikasleetatik bakarren bat ateratzen da ona, horri lagundu egin behar zaio eta lagundu egiten zaio.”

Ane Martin eta Mikel Albisu



Joxe Azurmendi: "Kontzientzia aldaketa bat eragin nahi nuke euskaldunengan"

Alemaniatik etorri berritan hartu gaitu Joxe Azurmendik, aspaldidanik pentsatuta geneukan elkarrizketa hau egiteko. Ezin utzi aipatu gabe bere azken liburua, "Espainolak eta euskaldunak" ospetsu eta zoragarria, euskal literaturaren marka guztiak hautsi dituen.


GOIERRITARREN laguna dugu bera, sustraiak galdu ez dituen. 1941ean jaio zen Zegaman eta kalekoa da Joxe, Arretxe etxekoa, "Bar Manolo"ren ondo-ondokoa.

XABIER MENDIGUREN.- Izaten al zara orain Zegaman?

JOXE AZURMENDI.- Bai, bai. Orain hilabete azkeneko aldiz, ama bisi-tatzen. 10 urtetik bizi izan naiz kanpoan eta herrira bueltatzen naizenean anai-arrebak eta ama ikusteko izaten da.

X.M.- Hitz gutxitan, zer dio zure azken liburu honek?

J.A.- Batetik espainolak intolerante batzuk direla eta euskaldunak tonto lardo batzuk direla. Eta bien artean euskal kultura porrokatu dute. Ondorioa gaurko Euskal Herria da. Liburuko orrialde mordo bat "intsultorio" bat da, nola espainolek euskaldunak insultatu izan dituzten, bereziki XVI eta XVII. mendeetan eta lehenago ere. Euskaldunak insultatzeko tradizio egina zegoen Erdi Arotik aurrera eta hori jasotzen da liburuan.



Ondoren, euskaldunen mitoak jasotzen dira. Mila aldiz burla egiteko aipatu izan zaizkigun mitoak: euskaldunak Noeren ilobak garela, paradisuko hizkuntza euskara izan omen zela, erromatarrek ere ez zituztela euskaldunak menperatu... Euskaldun harroaren mitologia bat dago eta horregatik burla egin izan digute. Burla egin digute eta guk, beldurrez, sinistu.

X.M.- Eta arrakastarekin pozik?

J.A.- Oso pozik. "Elkar" argitaletxekoei eskerrak. Behar zen garaian atera zen, propaganda ondo egin, komunikabideetan azaldu zen... Oso ona izan zen "Egunkaria"n Lorea Agirre beasaindarrek egindako laburpena.

X.M.- Eta eraginik izango al du liburuak?

J.A.- Nik espero dut irakurleak libertatea lortzea, bere historiaz aske pentsatzeko, bere euskaltasuna ukatu gabe. Kontzientzi aldaketa bat eragin nahi nuke euskaldunen artean, beldur kolektiboak uxatzeko. Baskoak ere konplexu horiekintxe bizi dira baina ez dira enteratuko.

X.M.- Horiek nork askatu?

J.A.- Euskaraz ez dakiten baskoek, azkenean beti euskaltasuna ukatu eta espainolismoan aurkitzen dute beren babesa. Batzuek internazionalismoz jaten badute ere, espainoltxoak besterik ez dira.

X.M.- Esan liteke zure liburu guztien gailur modukoa dela hau...

J.A.- Honekin lotuenak "Gizona abere

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN

hutsa da" eta "Gizaberearen bakeak eta gerrak" dira. Lehenengoan pertsona libratu nahi dut bere kateetatik (erlijio, moral, filosofia) den bezala hartuz; bestean herria, kolektibitatea.

"Baskoek azkenean euskaltasuna ukatu eta espainolismoan aurkitzen dute babesa"

X.M.- Zure liburu unibertsalenak dira.

J.A.- Bai, historia gutxiago agertzen denez, edonongo jendeak irakur dezake berdin, Euskal Herrian nahiz kanpoan.

X.M.- Gainerakoan, liburu asko eta gai ugari, ezta?

J.A.- Bai, eta beti kontra. Inguruan denak komunistak zirenean komunismo mota baten kontra idatzi nuen eta marxismo baten kontra, marxismo nere ustez justuago, zuzenago baten alde. "Orixe" jainkotuaren kontra, Orixe jatorrago baten alde. Miranderen kondena orokorra zenean ere haren alde, nahiz ez etorri bat Miranderen iritzie-

kin. "Hau ondo dago, hau gaizki" eskemaren kontra egon naiz ni, ezin dirrelako bertute eta bekatuak banatu, biek bat osatzen dute.

X.M.- Polemista orduan?

J.A.- Ez, alderantziz: modu ez polemikoan idatzi dut, parean jarritako alderdi bietatik diferente. Sabin Arana-rekin ere kritika eta bindikazioa batera egin nituen, eta beti politika eta kulturako auziekin.

X.M.- Nolako oihartzuna izan duzu, zure ustez?

J.A.- Euskal Herrian ona, positiboa. Askotan iruditzen zait kopiatu edo egin didatela baina ez zait axola. Ni ez nago



jabetza pribatuaren alde, are gutxiago ideien alorrean, eta neuri ere gertatu zait, kristoren burutazioa izan dudala pentsatu eta gero beste norbaitek idatzi zuela konturatu. Beraz, ideiak pasatu egiten dira eta hori ona da.

X.M.- Erdaraz ere egin zenuen libururen bat...


J.A.- Bai: "El hombre cooperativo", J.M. Arizmendiarietaren pentsamenduaz. Enkargu bat izan zen, txiripaz iritsi zitzaiguna eta Arrasaten lau urte eman nituen artxiboak arakatzeko baina gero oso interesgarria izan zen. Japonieraz eta ingelesez ere atera dute.

X.M.- Eta aurrerantzean, zer asmo duzu?

J.A.- Karlos Santamariaren obraren edizioa ari gara prestatzen "Jakin" taldean. Bilketa, ikerketa eta abar. Hori bukatutakoan berri, badut filosofiaren historiarekin lotutako gauza batzuk egiteko asmoa...

Lanean utzi dugu Joxe Azurmendi, "Euskal Herriko Unibertsitate"an atera berri duen filosofia katedrako klaseak prestatuz. Segi dezala lanean eta eman diezagula lehenbailehen bere luma zorrotza gozatzeko parada.

Xabier Mendiguren



Argazkian Ramon Agirre eta Fotoetxeko «Lake»

**Arabar Espedizioa
Everest 93**

**FOTOETXE-kook
Everest-erako
arabar espedizioan
partaide den
RAMON AGIRRE-ri
babesa ematen
diogu.**

**«Marron»
ataundarrak
parapenten
salto egingo du
munduko
gailurretik**

BEASAINGO EZKIAGA AUZOAK 3.000 BIZTANLE INGURU DITU

“Porteria”: ahaztutatik berreskuratzea

Azken urte t'erdian, Beasaingo Porteriako auzotarrek aspal-dian ahaztua genuen auzo-elkartearen borrokari ekin diote. 80ko hamarkadako lehen saioaren jarraipen gisa har daiteke honokoa, harrez gerozkotan auzoaren gabeziak, eskasiak eta Udalaren ajolagabetasuna izugarriak zirenez.

Hona hemen “Zutik Goierri” aldizkaritxoaren azken zenbakian Porteriko Auzo Elkartearekin eginiko elkarrizketa:

--Zehaztuko al dizkiguzue zuen erreibindikazioak, esplikatuko Udalarekin dituzuen harremanak?

--Orain arteko erreibindikazio defendituenak urbanismo ingurukoak izan dira. Udalarekiko lehen harremana eta gero, elkarteak eztabaidatuko zuen proiektua aurkeztu zuen honek eta elaboretzen ari den egitasmo berezi batean mamitu da. Gure proposamenen artean, orain altxatzen ari den frontoia zegoen, hau da lehen obra-lana. CAFen etxeekiko eta 2. eta 3. bial-ekiko arazo bat dago. Gure proposamena fronte guztia kentzea zen, kapera barne eta hau auzoko beste zonalde batean kokatzea, baina, CAFen berregokitze obrak erakutsi dutenez, ez du aurrera egin intentzio horrek. Gure bindikapenen izaera urbanistikoak ez du esanahi gure proiektua konstruktibista denik. Ez gara eraikitzeagatik eraikitzearen aldeko eta pentsatzen dugu benetako beharizanen arabera

planifikatu behar direla etxebizitzak.

Erreibindikapen urbanistiko hauen garrantziaz aparte, uste dugu auzo-elkarte batek auzo bereko talde eta mugimendu guztiak barnean hartu behar dituela eta laister batean giza eta kultur izaera hasiko dela aipagarri izaten. Batipat, otsailetik aurrera auzo elkartearentzako lokala izango baitugulako eta baita ere 300 metro karratu gehiago auzotarren erabilerarako, liburutegia barne. Uste dugu auzoa biltzeko beha-

rigintza, zerbitzuak, ekintzak, propaganda, gobernamentua). Gaztedi batzorde bat sortzeko saioak egiten ari gara gainera. Orokorrean, batzorde bakoitzak dauka bere metodoa. Batzorde hauetako batek eskatutakoan biltzen da elkarte, eta, adibidez, Udaletxera joan behar denean auzoko gaien bati buruz hitz egitera.

--Bukatzeko, elkarteko zer jotzen duzue aipagarrien?


--Lehen esan bezala, gure auzoa nahiko auzo marginala eta hirigintza-gabezia askokoa izan da. Bizilagunen %80a biltzeak pisu eta indar handia ematen digute Udalarekin hitz egiteko orduan. Honek erakusten du, kejak eta arazoak bilduta planteatzen direnean, pisu gehiago dutela bakarka baino eta prexikoa dela lan kolektibo hau zenbait erreibindikazio lortzekotan. Elkarteak,

rezkoa den giza/kultur eginkizuna erraztuko digula.

--Zenbatekoa da auzokoan partehartzea eta zein zuen lan dinami-ka?

--Partehartzea handia da, elkarteak auzokoan %80a ordezkatzen du, ezen bertako 580 atetatik 470aren apoioa dugu. Dena den, barriaren egitura dela eta, egia da ere zonaldeak badaudena erdigunerako joera gehiago dutenak, Zazpiturrietako kasua esaterako eta atzeko kaleko baten batzu ez daude elkarturik. Lan-dinamikari dagokionean, batzorde ezberdinak ditugu (hi-

auzokoek aipatutako gaiak biltzen ditu eta gure prolemak soluzionatzeko interlokutore eta bozeramaile bihurtzen da. Ideologi eta politika diferentziak gaindituta, denon laguntzaz, gu kontutan hartu gabe auzorik ez dadila egin lortu dugu. Interlokutore balidoak bilakatzeko, gainera, gauzak errazagoak dira eta arazo zehatzak efikazia handiagoz soluzionatzen dira; guzti horrengatik uste dugu, oso garrantzitsua dela gure elkartzearen lana eta sortzen den edozein elkarteri laguntzeko prest gaude. (Erredazioan itzulia)



IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN

ARRANO Taberna

Ogitartekoak eta Pintxoak

Kale Nagusia, 12

Tel. 88 74 47

BEASAIN

TXINDOKITIK KARIBERA, KANARIETARA, IPARRALDERA... NORA EZ?

Munduaren muturrerainoko bidaia

Bidaia turistikoek gora egin dute aspaldiko urteetan. Jendeak pentsamoldeak aldatu eta asti libre gehiago duenaren, bizitza mailaren igoeraren erakusgarri izan daiteke hori. Kultur arloan mundura zabaltzeko era izan daiteke bidaiatzea. Eta hara eta hona hasiz gero segi egin behar.

Andoni Etxeberria zaldibitarak muntatutako "Txindoki Bidaiak" turismo agentziak ere gora egin du. Ordiziako bulegoa izango zen aurrenekoakoa; Errenderian, Donostian, Bilbon, Baionan eta Belgikan ere irekiak dituzte sukursalak; Londonen ere irekitzekotan dira... Guk Ordiziakoan bulegaria dagoen Ana Juez lazkaotarrarengana jo dugu, bidaien munduko joerez hitz egiteko.

Uda "izarra"

Anaren esanetan, jendea badan egiten duena eta jai egun batzu izan bezain pronto bidaiatzeko aprobetxatzen dutenak. "Ikasteko era ederra izan ezezik, gozatu egiten duzu, beste kultura eta pentsamoldeak ikusi eta zure mundua zabaltzeko baliagarri da".

Bidaiatzeko grina urte osora zabalduden gauza da, baina udak segitzen du izaten bidaien "izarra". Ez jendeak hala nahi duelako, oporrak udan direlako baizik. "Halere, geroz eta gehiago zabaltzen dihoan joera da oporrak zatikatzea edo udaz kanpoko denboraldian hartzea. Lojikoak baita izan ere, udan bidaiatzea garestiagoa da, jende multzo handiagoak dira turismo-gunetan. Urrian edo azaroan adib., lasaiago eta hobe bidaia dezakezu". Gero "zubiak", asteburu luzetxoak daude, ihesalditxoak, oso urrutira ezpada ere. Parisera, esate baterako, "EuroDisney"k arrakasta handia izan du, destinu berria baita; hainbat gurasok beren seme-alabak eramane dituzte hara, Olentzaro / Errege opari bezala.

Bereko produktu salduenak

Karibeko Cartagena de Indias ezkonberrientzat omen aproposenetakoa: hiri kolonialak dituen hondartzak, egin litezkeen txangoak gomendatzen ditu "Txindoki"k. Destinu ez ohizkoa

da Kuba eta Cancun ez bezala. Eztei bidaiariak Karibea eskatzen dute, ez zirkuituak baizik eta egonaldiak. Cancun da izarra, Sto. Domingo eta Kuba errepasatuenak, ohizkoenak eta ekonomikoenak, barnealdean eta kostaldean. Denboraldi baxuetan, Karibera txarter-hegaldi oso merkeak daudela dio Anak; eguberritarako irla batean txoko bat bilatu ezinean aurkitu da. Hortik ikus daiteke nola probetxatzen duen jendeak. Noski, negu gorrian gu-



txienez 20 eta 30 gradu daude han. Egipto, Turkia eta European barrenako bidaia asko eskatzen bide dira, era berean.

"Elurak tropelak mugitzen ditu eskiatzera"

Neguan eskia saltzen da, jendeak uste duen baino gehiago, geroz eta gehiago. "Udan hondartzara zoaz, baina neguko eskia oso diferentea da, turismoa egiteko era desberdina da. Jendeak denboraldi haseran oso gustora hartzen du, bi aldeetako Pirinioak, Alpeak... Ondo pasatzeko ez dago eguzkiaren beharrik. Giro oso beste-lakoak sortzen dira elurraren inguruan, tropelak mugitzen ditu. Oso aparteko jendea juntatzen da". Jaka, Formigal eta horietan giro oso jatorra dela, ligatu ere ligatzen bide da...

Gazteen munduak "Mundu Gaztea" ezagutzen omen du, "bidaia merkeak dira eta kalitate/prezio erlazioa oso ona da. Bidaia gazte-jendeari zuzenduak datoz, noski, ez dira 5 izarretako hotelak, baina erosoak eta gazte-giro politik sortzen dira. Adinekoekin ibili, lagunak egin, bidaia zehatz hori es-

katzen dute gazte askok zuzen-zuzen. Busean, hegazkinean, e.a.-etan joan daitezke, baina gazte-jendea beti. Gero, ikasketa bukaerako bidaien aurrekontu ugari eskatzen zaizkigu. Horientzat, osotasunean, 'pakete' berezi eta eskusiboak antolatzen zaizkie, beren eskakizunei erantzungo dien bidaia: izar bat edo biko hotelak, segun eta..."

Iparraldeko Pirinioetan eta Landetan etxe-alokatzeak ere gora egin du azkenaldian. "Etxe indibidualak bezala prestatuak daude, txalet bateratuak, baserriak. Familientzat oso ondo daude, independente zaude. Landetan supermerkatuak, garbigailuak eta denetik dituzten hesparruak daude. Alojamentu oso ekonomikoak dira, asteburu edo astebete baterako aloka daitezke. Zenbat eta jende gehiago sartu, orduan eta merkeago. Adibidez, 'zubi' bat etxean bezin merke igaro dezakete bi familiek, erabat jantzirik baitaude etxeok".

Gainontzean, 3. adineko jendearentzat eginiko bidaia: Benidorrak jarraitzen du izaten "meka". "Denak biltzen dira, giro izango dutela bada-kite eta, udan bezin bero ezpada ere, negua epeltzeko aukera dute aiton-amonek". Kanariar irlak dira preziatuenak, eguraldi ezin-hobearekin, negua laburtze-alde. Eskeintza asko ateratzen dira aidanez eta jendea oso gustora dator bueltan.

Bidaiatzeko hainbeste grina egon behar du ezen kalean esaten da batzuk epeka ordaindu edota kredituak eskatzen dituztela ospa egiteko. "Hemen ez da halako askorik gertatzen. Bidaia agentzia handiek uzten baitute epeka ordainduz bidaiatzeko aukera hori...", diosku bukatzeko lazkaotarrak.

Kontua da, gaur egun Goierritik munduko edozein lekutara lasai asko joan gaitezkeela. Arazorik gabe, dirua edo denbora ez bada. "Txindoki" bidaia %5aren deskontua egiten digu goierritarrei eta aprobetxatu: Kubara nola ttottoaren ipurdira joanez gero, goierritarren bat han aurkitzea ez harritu!

Mikel Aramendi

Joxe Mari Telleriaren kapritxoak argazkiak zintzilik

Ezkontz erreportai eta erretra-toengatik bada ere ezagunen, argazki bereziagoak eta ez hain komertzialak ere egiten ditu idiazabaldar honek. Erakusketak bat baino gehiago paratu ditu, baina atseginena Beasaingo tren-geltoki pareko bere tendako eska-paratea du.

Ttarra-ttarra arituz, gazterik ernatu zitzaion Beasaingo "Fotoetxe"ko nagusiari argazkigintzarako afizioa. Sekula ez zen planteatzen profesionaltzea, ordea. Benetan, bere kasa ikasi du praktika-rekin, mintegi eta ikastarotara joanaz ere bai. Bere kasuan, lanbidea zaletasuna ere bada eta horri esker egin ditu hamaika gauza, bestela egingo ez zituzkeenak. Saldu beharrekoek gain, kapritxoak, bizi duelako gustokoa duena, nolabait.

Orain 35 urte ditu eta ez da hainbeste egoten Mostradorean. 82.ean ireki zuen; aurretik ibilia zen errebelatzen eta "saltseatzen" Idiazabal-en, garbi izanik negozioa irekitzera zihoala. Geroztik lan asko egin du. "Argazki-mundutxo honetan alor desberdinak daude: publikoari begira, publizitatea, enpresena, argazkilari grafikoa... Kajao-rrasa zela, Diputazioa zela, disko-azalak, egutegiak, piska bat sartu nintzen hor. Baina erabaki bat hartu behar da eta aukeratzea ere garrantzitsua da. Nahiko zaila zenez eta oso tarteka aterako zirenez halako lanak, lanbide bat behar nuen eta, bati, honi heldu nion, publikoaren zerbitzuari".

Lerro horretan, orain sei bat urte-edo, alde soziala kubritzen hasi zen: ezkontzak-eta barra-barra.

GALDERA.-Nola hasi zinen erakusketak egiten?

ERANTZUNA.-Idiazabalgo Kultur Etxean egin nuen lehenengoa eta geroztik beste 6-7 ere bai. Altsasun, Zegaman, Lazkaon eta Beasainen azkena, maila txikian hasi nintzela aitortu behar

pertsonai dramatikoak eta paisaiak ere badituz buruan...) eta hemendik maiz-tzera zerbait gauzatuko dugu.

G.- Enkarguzko lanetan ezezik kapritxoak, beraz.

E.- Gure lan bereziak eztaietako enkarguen asuntua da. Nik uste dut hor ere lan fina egin litekeela gustoz.

G.- Egintza sozialak ez dauka "horteroa" izan beharrik...

E.- Ez, ez. Noski, kontestu horretan sartu behar duzu. Giro horiek ezagutzen ez dituenarentzat "horterada" izan liteke beti. Baina analizatzen hasten bazara... Seminario batean publizitate-argazkilari suediar bat, "Interview" eta "Lecturas"eko argazkilariak ezagutu genituen. Beren motor, tripode eta foko desmontagarriekin, era ederrean lan egiten zuten, bere 'ukitua' zeukan egiten zituzten fotoak. Gure lana oso zaila zen haienentzat: eurak jende prestatu eta goapoengana joaten ziren eta, aitortzen ziguten gure meritua, jende tipo oso ezberdinekin lan egin behar dugula, beren eta gure gustora.

G.- Eta ukitu artistikoa eman behar gainera.


E.- Jakina. Adibidez, aurren Idiazabalgo etxean diru bat

enplegatu dut etxe-barruak edertzen ezkontz argazkiak egiteko; zuri-bel-tzean nahiz koloretan, betiko ezkontz-argazkietako topikoekin hausteko. Muga batzuekin, baina alda litezke topikook: belardian ardiak hondoan, e.a. Gero askotan jendeak zer eskatzen dizun dago. Baina zuk idea egokia dela uste duzunari eusten badiozu...



dut. Lan ez-komertzialak erakusteko aukera bat da. Hasera batean zuretzako dena berria da. Baina geroz eta zailagoa da, geroz eta gehiago kostatzen zaizu zeure burua gaintzea. Horregatik, orain urtean 2-3 bat aldiz egiten ditut erakusketak. Orain bertan idea batzuek badituz ("Mari" pertsonaia mitologikoari buruz, Lantzeko inauteriak,

Karta bereziaz
gain,
bertako
babarrunak



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

eta ehizea,
bere
garaian
enkarguz

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

URBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuleketan espezialdua
- Enkarguak



Tfnoa: 88 83 31

ERGOIENA AUZOA. Tfnoa: 88 27 19 • ATAUN

G.- Zer erakutsi berri duzu? Nola aukeratzen dituzu gaiak?

E.- Zintzilikatuetan, "Errota, Iñauteria, Geltokia, Bideko argiak", e.a. Baita ere hiruzpalau argazkiko sail bat prestatzen dut eta tendako eskaparatean jartzen ditut, festetan edo bestela: Florentziakoak e.a. Errota xortako argazkiak, esaterako, egiten hasi arte ez duzu ikusten zernolako trabak egon daitezkeen horiek ateratzeko. Esperientzia hori polita izan zen: errotaren eta errotarriaren azpian aritu behar duzu, argizatze bereziarekin. Halako tipoko esperientzia askotarikoak izan dira. Gaiak aukeratze kontuan, "Cosmopolitan"eko argazkilari batek zioen askotan sentsazio batek jartzen zuela funtzionamenduan. Usai batek argi bat eta konposizio bat duen egoera edo eszena batera eramaten zaitu. Uste dut hori argazkilari gehienoi gertatzen zaigula. Askotan ez duzu gogoratzen pelikula oso bat, eszena bat baizik.

G.- Hori errekreitzen ausartu



behar.

E.- Nik uste hori dela politena. Momentuan ezpada ere, buruan hartuak dauzkazu apunte batzu eta gero garatzen dituzu. Argazki bakoitza aurrez pentsatzea eta ikustea dut gustoko, az-

ken xehetasuneraino. Jakina, beste batzuk esango dute espontaneoki hartutako argazkiak direla onenak.

G.- Doisneau, Cappa, kaleko argazkilariak...

E.- Cartier Bresson-eta... Jende mota bakoitzak gauza bat edo bestea baloratu du. Estudioko argazkilariak kontraste handiak eta argi bereziak bilatzen dituzte. Oso prestatua da, baina bere balioa dauka.

Argazkilari prestigiotsu honek gustora egiten ditu bere lanak ematen dituzten erakusketok. "Ondo daude norberaren kurrikulumerako, baina gu bezalakoentzako, toki oso egokia da dendako erakusleirua, inportantea da. Inor gutxi mugitzen da erakusketetatik eta jende oso korrienteak ikusi phi du pasadizoan kaletik dihoala. Beren komentarioa egingo dute eta niretzako oso positiboa da hori".

Jon Arano

GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAUAK

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86



GOIAGI OKINDEGIA

Etxezarreta, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA



LEIAR
KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarretzea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24
BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70
BEASAIN

Bodegon
GOIERRI
JATETXEA

Kale Nagusia, 20 Tel. 88 00 00 **BEASAIN**



Elkarriketa

ORDIZIAR ARGAZKILARI EZAGUNA, HAINBAT SARIREN IRABAZLE

Gema Arrugaeta: "Eboluzionatzea da garrantzitsuena orain"

Aditua izan ala ez, edonork at-
ra dezake argazki bat gaur
egun, horretarako hainbat
makina apropos baitaude.
Gema M. Arrugaeta argazkilari or-
diziarra ez dabil denbora-pasa
mundu horretan, profesionala da
neska hau.

89.eko "Luxenburg" Sari
Nagusiaren irabazleak Gain-
tzan gelditzea erabaki zuen.
Hango etxean du laborategia
eta bertako Alkate egin zuten
gaintzatarrek. Hor jasotzen di-
tu enkarguak, aldizkariak
("Habe", "Emakunde"...
GOIERRITARRAren baka-
rren bat), argitaletxeetatik, e.a.
Lan-motaren arabera presta-
tzen ditu argazkiak.

Lehen lehiaketetara aur-
kezten zen baina dagoeneko
ez. "Bere garaian ondo zeto-
zen, argazkigintza giroan sar-
tzeke-eta, bazegoen arrazoirik
ibiltzeko, nahiz eta batzutan ez
zuen merezi gauza askotan
ibiltzea; nere burua ezaguta-
razi nahi nuen bai Ordizia eta
bai Gipuzkoa mailan". Eta
ezaguna bilakatu zen.

GALDERA: Ez duzu era-
kusketarik egin oraindik;
egiteko asmorik?

ERANTZUNA: Beno, lehen
pentsatzen nuen lan on bat bil-
dutakoan egingo nuela. Baina
egun ere ez dut ikusten mo-
menturik aproposena. Ebolu-
zionatzen ari naiz eta materiala
sortu eta denbora batera ez dut
hain ona ikusten. Ez dut uste
erakusketa bat antola dezake-

danik dauzkadanekin. Erakusketak
gauza serioa dira eta benetan onak edu-
ki arte ez ditut erakutsiko. Bestalde, eta
merkatuari begira, hemen ez dago gi-
rorik argazkirik saltzeko. Egitekotan
kolektibo baten barruan edo kanpoan
zeozer egiten ari zarenean merezi du,

baina momentuz ez. Perun lortu nuen
materialekin egingo dut zerbait, halere.
Baina kanpoan, ez hemen.

**G: Bidai-zale zara. Argazkilaritzan
ikasteko baliagarria zaizu?**

E: Bidai gehiago egitea pentsatu eta
hori ia bizimodu bezala hartzea espero
dut, nere asmoetariko bat da,
zaila bada ere. Bidaietan alde
guztietatik ikasten da, baina
argazkigintzan konkretatuz,
ikasteko era garrantzitsuena
esperientzia hartzea da, eta or-
duan, geroz eta gehiago ibili,
hobe. Argazkilariekin hitze-
gin, ikusi eta teknikak ikasi,
egoera desberdin piloa dituzu
aurrean: argi desberdinak, al-
turak, e.a. adib.

**G: Zure gustokoa ala bestee-
na behar du argazkiak?**

E: Beno, hemen bi gauza dau-
de: nik nere kabuz egiten ditu-
danean, konforme naiz nahi
nuena adierazten badu argaz-
kiak, hau da, ni gustora geldi-
tzea, besteengan izango duen
arrakasta begiratu gabe; dena
den, argazki hauek onarpen
minimo bat izan dezaten ere
begiratzen dut eta nahi dut. En-
karguetan, bestalde, gauza as-
ko hartu behar dituzu kontutan,
ez zara zu bakarra. Askotan
gertatzen da zuri gutxien gus-
tatzen zaizkizun horiek auke-
ratzen dituztela. Normalean ez
zara gustora gelditzen.

**G: Badago girorik Hemen
argazkilarientzat?**

E: Ez gehiegi. Ni nere kaxa
ibiltzen naiz gai-



ELOSEGI-ARACO
Ardotegiak

OLABERRIA-LAGUARDIA



Ofi-Gamar, c.b.
Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

ALUMINIOZKO METALISTERIA

OTATZA PLAZA, 1- BEHEA. • Tfnoa: 88 86 66 • ORDIZIA

nera, enkarguak jasoz. Ordizian Ortzadar Elkartea dago, baina hauek beste maila batean dabilta eta dagoe-neko ez zait interesatzen gehiegi. Goierri mailan ere ez eta Gipuzkoan aipa daiteke Profesionalen Elkartea, ondo funtzionatzen duena, baina gutxi dira. Elkartzeko tresna ona da, baina gehienbat bakoitza bere aldetik dabil. Hortik kanpo ez dago ez girorik ez merkaturik, dena oso itxia da. Hemen dena Madril eta Bartzelonan dago kontzentratuak: argakilari, argitaletxe... Beste bailadak ere berdin daude eta Euskadin ez dut mogimendurik ikusten etorkizunerako.

G: Zeure helburuak markatuak dituzu?

E: Garrantzitsuena eboluzionatzea da, ez gelditzea eta ahal den bezala zabal-tzea, kanpoan ibili eta ikasi. Europa ezagutzea, esateko, ondo dator ikaste-ko, argazkilaritza egiturak eta azpiegi-turak baitaude (eskolak-eta), erakus-

keta pilo bat. Halakorik ez da oraindik Madrilan eta Bartzelonan ere.

G: Gaintzako Alkate ere bazara. Zer nolako esperientzia ekarri dizu postuak?

"Hemen ez da ez girorik ez merkaturik"

E: Ez da oso pozgarria, baina alde ona ere badu, jendearekikoa ikasten dela-ko. "Gogorragoa" egiten zara: jendea etortzen zaizu irtenbideen eske eta batzutan ezin duzu konpondu arazoak. Herri txikia da, denak ezagutzen gara eta ezin dituzu denak poztu. Horregatik gogor egin behar duzu zenbaitetan. Egia esan, postua uzteko gogoak ere baditut. Ordiziako batek, adibidez, arazo gehiago edukiko ditu, baina jende gehiago dago eta inbertsonalagoa

bihurtuko da lana. Kanpotik ala barru-tik begiratu, gauzak beste modu batera ikusten dira eta batzutan, beste erreme-diorik ezean, nahi ez nituen bezala konpondu behar izaten ditut arazoak nik. Gertatzen da hiritarrek akatsak ikusten dituztela, eta egin egingo dira, baina agian ezin da besterik egin. Ho-nek ez du esan nahi kontsekuenteagoak izaten saiatu behar ez dugunik.

G: Zein asmo dituzu Gaintzarako?

E: Oinarritzko betebeharrak badi-tu Gaintzak. Urteetan lortzen saiatzen ari diren gutxieneko helburuak, uren ekar-keta, adibidez; baserriarren bizimodua hobetzea... Benetako herri izaten aha-leginduko gara, eta "ciudad dormitorio" delako bat ez dadila bihurtu, hori baita herri bat hiltzeko modurik hobe-rena. Guztiok lortzea erraza ez da izan-go, baina.

Jesus M. Munduate

Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA

ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)




HOBETU ZURE KIROLA MAJORIREKIN

Honako zerbitzu hauek ditugu
Pabilioia - rokodromoa - muskulazio gela - igerileku klimatizatuak
gimnasioa - squash - tenis - paddle tenis - sauna - UVA izpiak
hidromasaia - kirolerako masaia eta terapeutikoak - kirolerako
medikuntza zentroa

Irakasle espezializatuak zuzenduriko taldeak
Aerobic - gorputz zaintza - 3 adineko gimnasia - Dantza hastapenak
tenisa - muskulazioa - igeriketa - zuzendua edo hidro-gim - tenisa - judoa
igeriketa

Ordizian espero zaitugu!! Tel. 88933/53

Jose txo Elkoro: "Azken Sariak gehiago motiba- tzen gaitu"



Ordizia Kirol Elkarteko Igeriketa Sailaren helburu nagusia kirolaren promozioa da. Goi mailako lehia maila herrikoiekin bat etor daitekeela, hemen munduko edozein lekutan bezain goi-mailako kirola egin daitekeela uste dute. Eta asmatu dute: pozik daude Eguberrietako Igeriketa Sariak izan duen oihartzu-narekin.

OKE Igeriketaz zerbait

OKEk Goierrialdeko igerilariak ere biltzen ditu; Lazkao Ordiziako orbita barñuan da; Beasain oraindik ez, baina saio batzu egiten dira 3 herri on artean, eskolumeen elkar-ezagutza bultzatuz. Neska-mutikoak kirolaz blai hezi daitezeela da nahia.

Igeriketa Taldea igerilarien eta beren gurasoen, bazkideen inguruan, konfiguraturik dator. Hauek kuota bat ordaintzen dute eta diru horiekin pagatzen dira Klubaren gastuak (monitorea, bidaiak, fitxak,...). "Oraintxe 112 igerilari eta bazkide daude. Beheralditxo batean dago Kluba (igerilari onak daude, baina kopururik ez), eta mailari eusteko 150tik 200 bitarteko igerilari eta bazkide behar genituzke".

Dirulaguntzak badituzte Diputazio-tik Espainiako eta Euskadiko txapelketarako; Udalak dagokion bere zati proportzionalaz lagundu eta instalakuntzen ikasleen erabilpena ere subentzionatzen du. Elkorok ez du uste subentzioak handituko zaizkienik Ordiziako Sari Handiaren arrakasta eta gero; proba hau autofinantzatu egiten da eta horretarako bai, laguntza igoko den esperantza du.

Galdera: Egiguzu Ordiziako Sariaren balantzea.

Erantzuna: Hurrengo edizioan, 11.ean, igeriketa liga europearraren kalendarioan sartuko gara. Nere ustez, inportanteena eman den jauzi kualitatiboa da, antolaketa eta lehiaketari dagokionean; kalitatea parte hartzen du-

ten igerilariak ematen dute eta, zentzu horretan, azpimarratu behar da "Marca" egunkariak Martin Lopez Zuberoen jardunari emandako "bikain" kalifikazioa. Nesken alorrean, Sandra Fekete hungariarraren, 10. edizio honetako garailearen, paperaz gain, beste nesken lana. Guzti horrek bultzada izugarria eman dio Proba honi. Hemendik aurrerako pultsua, kalitateari eustea izan behar du.

G: Eta antolaketari buruz, zer diozu?

E. Antolaketaren aldetik zorion-agur asko jaso dira. Oraindik ere gauza asko daude txukundu beharrekoak, baina kontutan euki behar da antolaketan dagoen jende multzotik neu bakarrik naitzela profesionala, gainontzekoak musu-truk ari dira. Diputazioan Lopez Zuberori eginiko harreraren, Kultur Diputatuak esan zuen Tourraren hasiera eta E.H.-ko Itzuliaren ondoren, komunikabideetan leku gehien izan duen ekintza Ordiziako Igeriketa Saria izan dela. Kontutan izanik igeriketa gutxiengoen kirola dela, urte osoan ezer gutxi publikatzen dela, asko da egin dena honekin.

G: Urte askotako ahaleginekin lortuko zen, ezta?

E: Halaxe da. 10 urtetako esfortzuak ekarri du. Hau ez da izan egun bateko larrosa, ez txiripa, Ordiziak lan egin du eta honetan jarraitzen du jendeak. Sariaren helburua garbi dago: ikuskizun bat ematean datza; dauden igerilari hoberekin batera, hasten ari diren eskolumeak, denak batera. Beste inongo probetan suertatzen ez dena da, karaktarra ematen dio gureari.

Eta gero igerilari ospetsuok diotena: Ordiziara eguberrietan etortzea, etxera etortzea bezala dela. Azken Sariak indar eta gogo gehiago ematen dizkigu, gehiago motibatzen gaitu gure helburuak lortzeko. Hau da, ikuskizun batean oinarrituz, kirol promozioa lortu; jendeak kirola egin dezala. Oso espektakularra ez den igeriketa, egun batzutan denon ahotan dago, Gipuzkoan gertatzen den kirol ekintza garrantzitsuena bihurtzen da Ordiziakoa. Merrezi du, beraz, gauza guzti horiengatik burukatzeak.

"Helburua: Ikuskizunean oinarrituz, kirol promozioa lortu"

Ordiziako Udala ere, bere izena urrutira eramateagatik, kontentu izango delakoan dago Jose txo. Beren teknikoak gutxi-asko ordainduta ari dira. "Hori inportantea da ze, igeriketa taldean pentsatzen dugu, kirola goarderia izatetik (mutikoak kalean edo droga-inguruetan ibili ez daitezen), instalakuntza onak euki eta kirola ondo egitera joan behar dela. Gurasoek esijitu behar dutena da edonon egiten den kirola ondo egin behar dela. Ni horren alde nago, bertako hainbat kirol-tekniko on horiek ondo pagaturik egon behar dute, desager dadila afizioz ari-tze kontu hori".

Osotasun batean hartutako eta maiuskulaz idatzitako Kirolaren alde agertu zaigu Jose txo Elkoro.

Jon Arano

Kirola: eredu beharrean

Goierri bezala Gipuzkoan, orokorrean Kirol-azpiegitura bikaina dagoenean orokorrean (istalakuntza modernoak eta ekipamendu eta konfortari dagokionean, berriz, maila on bat, europar ratio-ekin, e.a.), zer gertatzen da? Bada, Udalbatza guztiek prolematika bat dutela kontutan, istalakuntzen mantenu dezentekoa, gestio-eredua aukeratzeko orduko arazoak, kirol zerbitzura dedikatutako enpresen eskasia, subentzio-politika kuestionatuak, eta gisako kuestioekin.

Duela gutxi, Gipuzkoako Foru Al-
dundiko Kirol Departamentuko buru den Javier Garciak prentsaurre batean zenbait erreflexio egin zuen 2.000. urteko kirol politikari buruz. Zioenez, kontutan hartzekoa da irudikamena erabiltzearen beharra funtzionamendu-arauak hartzeko orduan, momentuko giza-errealitatei abiatu bai, baina sekula ez sinpleki gaurko arazoen erremedio bezala, erdi-eperako bistarekin baizik. Hau da, oraintxe, hala erakunde publikoek (Gobernua, Diputazioa, Udalak), nola kirol elkarteek, kuestionatu behar dutena zera da, zein izan behar duen beren eginkizuna hemendik 10/15 urtera eta jartzea orain-

goan beharrezko bitartekoak nahi diren helburuak lortzekotan.

Gaur egun, garrantzizko traszendentsia hartzen ari den kirol fenomenoak zenbait oinarritzko arazo ditu: kirol-politiken eza, erakunde publiko guztien mailan, ez dago argi eta garbi zeintzu diren bakoitzaren konpetentziak, azken batean Kirolaren gaian sarturik dauden lehendabizikoak diren Udalek eramaten dutelarik parterik txarrena.

Badira esparru instituzionalak orain-txe bertan kirola beren konpetentzien partetzat hartzen ez dutenak, hala nola, Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Ongizatea, Gaztedia, Hirigintza. Bada, etorkizunean egin beharko luketela dioten iritzikoa naiz, jakina, beren ikuspegitik abiatutik.

Argi denez hasiera batean markaturik zituzten helburuak betetzeko gai izan ez diren Udal Kirol Eskolen azpiegiturei buruz Gipuzkoako Foru Al-
dunditik etorri zaien kuestionamenduak bide eman diezaioke, gutxienez, Federaturiko Kirolean hil ala biziko garrantzia duen Eskolarteko Kirolak jasaten duen prolematikaren aurrean

kontzientzia bat hartzera.

Oraindik ez dago argi zenbait Kirol Federakunderentzat Kirol Federatua eta Eskolarteko Kirolaren arteko berezitasuna, irizpide diferentziatuak daude Lizentzien tramitazioan gutxieneko adina zein den dagokionean.

Nere ustez, Eskolarteko Kirolak eta Federatuak koexistitu dezakete, hobe esan ederki asko koexistitu behar dute eta horretarako bataren eta bestearen aktuzio-markuak zehaztea inportantea da, hastapenak eta kirol espezifikazioak bereiztuz kirol errendimenduen praktika edota Kirol Federatua-rengandik.

Bide asko geratzen da egiteke, baina momentu honetan bakoitzak berari dagokion alorra okupatzea litzateke hobereana, helburu garbi eta bereiztuekin, ez norbanakoaren prolematikarentzako momentuzko soluzio bezala, baizik eta Kirola osotasun baten gisa hartuko lukeen erdi-eperako horizonte batean bete beharreko planteamenduekin.

Josetxo Elkoro

Ordiziako Majori Kiroldegiko Zuz.

Bi lerrotan

□Arrakastatsu dabil. Jokin Mujika txirrindularia Espainiako ziklo-kross txapeldun geratu berri da. Galizan izan ditu bere garaipen hoberenak.

□Segurako pilotari gazteek ekitaldi polita izan zuten eguberri partean Zumarragan, Goizuetakoen aurka. Bertako Txirrindulari elkarteak, bestalde, Euskal Bizikleta Proba-
ren irteera eta helmuga Segurara ekartzea lortu du. Horretarako diruak biltzeko, kirol egitarau zabal bat eratu du: otsailak 14, Mountain Bike ibilaldia; martxoak 27, kadeten txirrindu-proba, e.a.

□Hasi da nesken futbol txapelketa Idiazabalgo "Zelaako kiroldegia"-n. "Matrakek", "Pasa zan aizan" eta "Super-girls" aldeko superneskek, ibili badabiltza, gutxienik.

□Ordiziako Iker Perez igerilaria urteko juniorrik onentzat jo du Espainiako Igerilari Federakundeak, 92ean egin duen anpaina izugarria dela medio. Espainiako maratoilari olinpikua eta errekorrean ezaguna den Diego Garciari omenealdi ikaina antolatu zioten herri bereko atleta herrikoien taldea en "Jatorra"-k. Fran Puertas ordiziar rugby-laria duela gutxi aukeratua izan da 7 kideekiko europar rugby talde-rako.

□Espainiako korrikalari txapelduna den Ana Isabel Alonso Beasaingo San Silbestreren XIX. edizioan izan genuen. Serrano izan zen irabazlea gizonezkoen atalean.

□(Egutegia) Ordiziako Mendizaleak: Otsailak 7: Bidani-Santageda-Urkia -Ordizia; 14: Etxegarate-Lizarrasti; 21: Orexa-Gaztelu-Tolosa; 28: Hirumugarrieta-Tuturre.



Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO

**Kirol jantzieta
espezialistak**

Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18



20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Zegamako "Orkatz" Abesbatza

Zegamako "Orkatz" abesbatzak 1981. urtean eta Parrokira mugaturik eman zituen lehen urratsak. Gerora izan dute aukerarik beren "lan eremua" zabaltzeko. 83an Gipuzkoako Abesbatzen Elkartean federatu ondoren, hasi ziren kanpoan kontzertuak eskaintzen. Partaideak haurrak zirela hasi eta urteak joan ahala (87an zehazki) helduen abesbatza sortzeko aukera izan zuten. Gaur egun Orkatz (helduena) eta Orkatz Txiki (haurrena) ditugu Zegaman. Hasiera hartan 4-5 ki-deetako zuzendaritza-taldea hasi eta gerora aldatuz joan dira zuzendariak. Haurren zuzendaritzan Maite Rodrigok lan egin bazuen ere, orain Arantxa Otaegik betetzen du papera eta helduenean Xabier Otaegi ari da.

Abesbatzak euskal folkloreko abestiak kantatzen ditu gehienbat; aipagarriak dira baita ere XV-XVI. mendeko eta beste herrietako folkloreko abestiak. *"Teorikoki daudenak eta gero agertzen direnen artean desajustaketa txiki bat: haur koruan 45 inguru izango dira eta helduenean berriz 45-47. Guztira 100enbat lagun biltzen gara"*, adierazi digu zuzendariak. Orkatz Txiki ikasleek osatzen dute eta nagusiki baita helduen abesbatza ere, azkenotatik gehien 18-25 urte bitartekoak direla. Hala ere, badira eremu ezberdinetako langileak. Korukide gehienak bertan jaioak dira eta gainontzekoak zegamar bihurtu dira. Ikasketak direla medio, aste barnean jende asko kanpoan ohi da eta entsaioak ostiral eta larunbatetan egiten dituzte. Entsauietako 3 ordu t'erdiei etekina ateraz gero abesbatzaren maila mantendu liteke, baina Xabierren ustez mugak hautsi, entsaio gehiago egin eta asteen zehar banatuz gero, askoz hobea litzateke.

Haurren korua Erreteriko Gabon Abestien Lehiaketan eta Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan aur-



keztu zen. Nagusien abesbatzak, aldiz, ez du lehiaketetan parte-hartzeko proiekturik egin oraindik. Otaegiren asmo pertsonala hildo horretatik doan arren, oraindik hainbat zailtasun aurkitzen dituzte talde bezala. *"Lehia horretan buru-belarri sartu eta gaizki suertatuz gero, zenbait deslilura sortzeko arriskua egon liteke"*. Gaur egun Orkatz koruaren helburuak bi dira: teknika aldetik lehiaketetan behar den maila lortzeko zenbait baldintza betetzea eta abesbatza bera finkatzea. *"Geure lan-korala hobetuz doan neurrian, emanaldiak areagotuz joan ditezela eskatzen dugu eta gerora, beharbada, geure helburuan artean egongo da lehiaketetara aurkeztea"*. Helduena gehienbat Euskal Herrian barne izandako kontzertuetan mugitu da. Baina garrantzia berezia dute beraientzat kanpokoekin izandako elkarraldatzeak: Madrilgo Euskal Etxera, Kataluniako San Sadurnira, joateko aukera. Azken hauekin elkarraldatze bat egitekotan dira; lan bateratu bat aurkezteko, alegia.

Musika mundua ere bukaezinezko prestaketa da. Gipuzkoako Elkartek antolaturiko zuzendaritza ikastaroetara

joanez ibili dira zegamarrak 4-5 urteetan. Orkatzetik ez dute dirurik jasotzen, zuzendaria partaide bat gehiago da, bere egitekoa zuzendaritza teknikoa. Goierriko koruen panorama Gipuzkoako barnean koka liteke bere ustez. *"Gipuzkoa momentu honetan, Euskadi eta baita Estatu mailan ere, egoera hobereanean dago. Goierriin badugu zenbait abesbatza on: Ordiziako Oroith eta Oroith Txiki (agerbidea, irabazitako sariak), Beasaingo Loinatz (zeinak lan garrantzitsua egiten duen), Zumarraga-Urretxuko Goiargi... Helburu ezberdinekin, beste maila batean kokatuko nuke Ordiziako Santa Ana. Denak eredu bezala har ditzazkegu, lana modu egokian betetzen baitute"*.

Xabierren ustez, eskualdeko abesbatzak sendotu egin dira eta ondorioz bakoitzak bere neurrian ahaleginak egin beharko lituzke hori sakondu eta aberasteko. Zegamarrak ari dira horretan, behinepein.

Estitxu Imaz

B E R O G A R

SUKALDEKO ALTZARIAK - ELEKTROGAILUAK

P. San Francisco, 10 - TOLOSA
Tfna: 65 33 07 - 73



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)

Ordiziako "Oroith" Abesbatza

Ordiziako "Oroith" Abesbatza 1984. urtean sortu zen, Garbiñe Balerdi, Ana Margareto eta Amalia Ibañezek (bertako Musika Eskolako irakasleak) helduen abesbatz bat eta umeen beste bat sortzea proposatu zutenean. "Geroago Anak orkestararen zuzendaritzari ekin zion eta Garbiñe atzerrira joan zen musika ikasketak jarraitzera", dio Amaliak, zuzendariak.

"Oroith" izena, kantatu zuten lehen kantatik, Lesbordesen "Ama" kantatik dator, "Ama oroith orduko heldu zait nigarra" esaldian agertzen den hitza guztien gustokoa izan zen eta abesbatzak hartu zuen. Oroith 18/35 urte bitarteko 30enbat gaztek osatzen du; Oroith Txikin 15/18 bitarteko gazteak daude eta gaur egun badago ere 9/12 urteen arteko haurren abesbatz bat, Oroith Txikitxoak, Jose Javier Huerta ordiziarren zuzendaritzapean. Azkenok oraindik ez dira hasi kontzertuak eskeintzen, baina aurten ateratzea espero dute.

Sari ugari

Urteak pasa ahala hainbat kontzertu eta txapelketetan parte hartu dute, baita sari ugari lortu ere. Oroithek lortu dituen aipagarrienak: 88.ean Aviles Hiria Lehiaketan 2. saria; 89ean Kataluniako Cantonigrosen 5.a eta ETBko 1. saria polifonia modalitatean; 90ean Ejea de los Caballerosen 1.a; 91n Tolosan 3.a folklore modalitatean eta 92.ean Austriako Spittalen Nazioarteko Jaialdian eskuhartu zuten.

Oroith Txikik helduen abesbatza adinako aipamena merezi duela esan behar da. Beren lorpen aipagarrienak: 87. eta 91. urteetan 2. saria Cantonigrosen, 88an 3.a eta 91.ean 2.a Tolosako lehiaketan; Errenteriako Gabon Kanta lehiaketan 1. saria 89an, Gasteizko Habane-



renekoan 1. saria 92.ean eta Frantziako Tourseko Nazioarteko Jaialdian ere parte hartu dute 92.ean gonbidatu bezala.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren partaide direla azpimarratu behar gainera, eta horrek suposatzen duenez, gure lurraldean eta mugetatik kanpo ere antolatzen diren aste kulturaletan parte hartzen dutela. Hala nola, Madril, Zaragoza, Erroman, e.a. abestu dute helduek eta gazteek berriz, Getxo, Burgos, Madril...

Txapelketak zer iruditzen zaizkion galdetu diogunean, beharrezkoak direla adierazi digu Amaliak. "Txapelketak jendeari nolabaiteko 'txispa' ematen dio. Kontzertuetara ez bezala, ondo prestatuta aurkeztu behar zara. Neurri batean beste taldeekin neurtzen zara eta abeslari entzat ere ohizko kontzertuek duten baino eragingarritasun gehiago dute. Neri izugarri gustatzen zaizkit, abeslariak asko disfrutatzen dutela ikusten dudalako".

Oroithek mota eta garai guztietako abestiak interpretatzen ditu. "Orain-

goan Aro Garaikideko abestiak prestatzen ari gara, 94.ean txapelketa batetara aurkezteko intentzioa dugulako". Aurten ez dira inolakoetara aurkeztu behar, erreperitorioa osatzeko momentuan horrek mugak ipintzen dituelako. "Gainera ekonomikoki ondo ez gaudeenez, programa osatzen ari tuko gara, datorren urtean irten ahal izateko".

Beren helburuez galdetu diogunean, hobeto kantatzea eta nazioarteko abesbatzek duten maila eta kalitatea eskuratzeko dela diosku zuzendariak, "baina hori denborarekin eta eguneroko lanarekin lortzen dela" pentsatzen du.

Goierriko abesbatzen panorama ona dela dio Ibañezek. "Hemen kalitate handiko abesbatz batzuk badaude, esate baterako aurrerakada izugarria egin duen Beasaingo Loinatz, oso ona. Horrezaz aparte, Euskadin badaude beste on batzuk, Hodeiertz, Eskifaia, San Inazio... alegia. Nik uste dut guri asko falta zaigula abesbatz on bat izateko, baina horretan gaude". Aupa Oroith, merezi duzue eta!

Rosa Amundarain

Unanue
— GOZOGINTZA —

-Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
-Santamaria, 10 ☎ 88 11 49
-J.M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
-Obradorea: Filipinas, z/g ☎ 8812 65

ORDIZIA



**TXALUPA
ERRETEGIA**

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA

Beasaingo "Loinatz" Abesbatza

"Loinatz" koralak, berez, 1939an sortu zen, Pedro J. Iguainen zuzendaritzapean. Hura hil zen 70.eko hamarkada bukaeran eta urte batzutarako desagertu eta ahaztu bazen ere Beasaingo abesbatza hau, 1986an bere 2. aldi historikoari ekin zion Xabier Sarasola zuela zuzendari.

Taldea, 80-90 pertsonekin edo hasi zen, baina orain kontzertuetan 45-50 inguru biltzen dira, nahiz eta berez gehixeago izan. Joan den urtean ordea, 10 bat lagun berri sartu ziren taldean. *"Kopuruz gaizki ere ez genbiltzan, baina badaezpada ere beti izaten da hobe gehixeago izatea"* adierazi du Xabier Sarasolak.

Orohar taldea gaztea da. Adin guztietako jendea badago ere, neska gazteak dira ugari. Gizonezko gehienak lanean dabiltza eta neska gehienak, berriz, ikasleak dira. Hori dela eta, *"entsaioak ostiral eta larunbatetan egin behar izaten ditugu"*. Nahiz eta adin desberdinetako jendeak osatu abesbatza, zuzendariaren esanetan, *"kanpora ateratzen garenean denak harrituta gelditzen dira gure artean dagoen giro onaz"*.

Lehiaketei begira zoritxarrez

Beasaingo abesbatza hau, batez ere inguruetako herrietatik mugitzen da. *"Hala ere, iazko urtean lehiaketetan aurkezteko erabakia hartu genuenez, Espainia aldera ere atera ginen"*.

Lehiaketei begira egindako preskakuntzak oso gogorak izan badira ere, ez dira kexatuko jasotako fruituaz. Orain arte hiru lehiaketetara aurkeztu dira beasaindarrak: *"Egea de los Camposen I. saria irabazi ge-*



nuen; Avilesen berriz, 3.a eta Cantonegroren 5.a". Sarasolak aitortu digunez ordea, bera ez da txapelketen oso zalea. *"Oso erlatiboa izaten da lehiaketetan egiten den lana. Askotan gainera, abestu beharreko obrak ez doaz bat zure koruak egiten duen musika motarekin. Hala ere, onartu beharra dago, korua hobetzen joateko sistema hoberena dela, jendea desberdin mentalizatzen baita eta gehiago saiatzen da gauzak buruz ikasten, nik nahigo nuke lehiarik gabe lan egitea baina..."*.

Gaur egun Euskal Herrian dauden abesbatza gehienek bezala, batez ere euskal musikan oinarritzen da "Loinatz". Klasikoa nahiz gaur egungoa. Hala ere, beren errepertorioen barruan sartzen dira barrokoak, klasi-


Ondo pasatzea helburu

"Niretzat helburu konkretuena musika egiten ondo pasatzea izan da. Jendeak ordea ondo pasatze hori era

desberdinetara ulertzen du. Nik oso argi daukat, niretzat ondo pasatzea, gauzak oso ondo egitea, eta bakoitzak ahotsa ahal duen kondizio onean edukitzea izango litzateke. Izan ere honek izugarrizko aukera ematen du lan egiteko", azpimarratu du Xabierrek.

Helburuak helburu, Goierriko abesbatzen maila ona nabaria da azken urte hauetan. *"Oroith-ekoak dira punta-puntanekoak"*. Aipagarria da baita ere, koruen artean sortzen ari diren harremanak. *"Gu, Oroith-ekoekin hasiak gara elkar-lanean, eta benetan oso aberasgarria izan da. Beti ere, zu baino gehiago den batekin aritzeak asko irakasten bait du"*, azaldu digu zuzendariak. Hala ere, harreman hauek Goierri mailara mugatu beharrean, interesgarria iruditzen zaio beasaindarrari, urrutigoko abesbatzekin gauza bera egitea.

Loinaz Agirre
Nekane Altuna



* Karta Zerbitzua
* Lan menuak

RUBIORENA
JATETXEA

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 B E A S A I N

Bi mejikano Maizpide euskaltegian

(Lazkao, 89-VII-19)

Lazkaoko Maizpide euskaltegiak antolatuturiko kultur-astearen barnean, inguruko bertsolariek urteroko saioa eskeini zieten herriarrei eta euskaldun berriei. Bi "mexikar"

ere izan ziren euren gitarra, sonbrero eta kaparekin: Zeberio I.a eta Begiristain, Maizpidera etorriak euskara ikastera...

* Doinua: "Alla en el rancho grande"

* Neurria: Zortziko txikia

Zeberio I

Con capa y sombrero
haze mucho calor,
y para cantar bertsos
hay que tener balor,
Mejikitik euskera
ikastera nator
beste melokotoi hau
zertan ote dator?

Begiristain

Trenez etorri gera
handikan eskapo,
ta Lazkao honetan
egin degu topo,
aurrean dituzute gaur
bi gaztetxo flako,
hizkuntza hau ikasi
nahi genduelako.

Zeberio I

Mejikon jakin gendun
euskeraren berri,
gero han kantatzeko
herririkan herri,
zuek ikaratuta

ez zaitezte jarri,
pistolarekin behintzat
ez degu ekarri.

Begiristain

Dionisio omen da
gaur gure nagusi,
bere esanetara
beharko da hasi,
kotxe espezial bat
guretzat erosi,
klasera joateko
sonbrero ta guzi.

(Begiristainek akordeak jotzen ditu. Zeberio I.ak "Egon hadi isilik, motel".)

Zeberio I

Ni naiz ayudantea
hau da Pancho Villa,
bioi gustatzen zaigu
whisky ta tekila,
hustutzen ditugunen
hiruna botila,
Maizpide ikastetxerik
ezin degu bila.

Begiristain

Ni nago gaur gaztea
sasoi latzekua,
eta laguna ere
nere antzekua,
guk degun bizioa
degu jatekua,
nun dago Lazkaoko
txuleta lekua?

Zeberio I

Be(g)iristain pistolan e(re)
ez da aldrebesa,
Mejikon egina du
bere linpieza,
lastima de holako
tiporikan eza,
baina harrigarria
dauka rapidez.

Begiristain

Gure gazte denbora
torpea izan zan,
ta gitarra honekin
jarri naiz balantzan,

ez daukagu egiterik
saltoan ta dantzan,
etorri garelako
famili esperantzan.

Zeberio I

Gauz bat esan nai diot
Dionisiori,
kontserba nai degula
lepondua guri,
entremes ta letxugak
kastellanoari,
ardo zar da txuletak
bi mejikanori.

Begiristain

Zortzi egunekin ginan
joateko etxera,
baina Dionisiok
egin du papera,
ondo ikasi arte
jarraitzeko aurrera,
ta hurrengo urtera arte
geldituko gera.

ARGIA-ren Denborapasak

BEGI-FLASH



Beñatek ama galdu du hondartzan, baina honoko bereizgarriak dakitzagu hura identifikatzeko: belarritakoak ditu, bikini marrazkiduna jutzen du, ilea ilun kolorekoa dauka, tabakozalea da, betaurreko beltzak erabiltzen ditu, eta ez da potoloa. Lagunduko al diozu Beñat negartiarri?

AURREKO ALEAREN SOLUZIOA

GURUTZEGRAMA ZURIA

EZKERESKUIN: 1. Hizkuntzalarriak. 2. Araudi. Erakarri. 3. Urria. Arakatu. K. 4. Tira. B. Ibar. Doa. 5. A. A. Sal. Arabiar. 6. Kateatua. I. AA. A. 7. Egunkaria. Ezki. 8. Tea. As. Agota. Zu. 9. Ar. Atunketariak. 10. Kin. Un. Ore. Arro.

GOITIK BEHERA: 1. Hautaketak. 2.- Irri. Ageri. 3.- Zarratua. N. 4.- Kuia. En. A. 5. Uda. Sakatu. 6. Ni. Batasun. 7. T. A. Lur. N. 8. Zeri. Aiako. 9. Araba. Ager. 10. Lakari. Ote. 11. Akara. Eta. 12. Rat. Bazara. 13. Irudiak. Ir. 14. Ar. Oa. Izar. 15. Kikara. Uko.



"Izotz kandelak", Nemesio Etxaniz, Elkar.

Bai liburu bitxia duela gutti liburu-dendetako apaletan aurkitu duguna. Liburua, prestatzaileak dioenaren kontra, bitan ez, baina hirutan partitua datorkigu: aurreneko atalean, I+aki Seguiolaren sarrera trinkoa (trinkoegia?) Nemesio Etxaniz zenaren gainean; hurrena, nobela deitu duten narrazioa eta azkenik epistolario bat.

Ez da denbora asko Susa argitaletxearen bitartez eta Jon Aranok prestatuturik, Txikiaren "Hitz etena" agertu zela. Liburua handik eta hemendik bildutako poemekin osaturik zetorkigun, eta Nemesio Etxanizen hau bezala, gure hutsune historiko-literarioa betetzera zetorren. Etxanizen "Izotz kandelak" ere 29 urteko atzerapenez heldu zaigu, baina hala eta guztiz, neurri batean behintzat, ez du gaurkotasunik

galdu.


Liburua irakurri ahala, beste izen askorekin batera, C. Pavaserena etorri zaigu gogora. Haren iritzian, gizabana-koaren haurtzaroan kokatu behar omen dira gure geroke portaera eta jarrerak; beraz, idazleak nortasunaren lehen urrats horiek sakon arakatu beharko ditu. Eta Etxanizen narrazioan Ximon protagonistaren umezaroak berebiziko garrantzia du (nahiz eta batzuetan psikologikoa baino areago, antropologikoa dirudien). Baina Pavaseri jarraituz, norberaren nortasunean beti geratzen omen da alor bat, berak salbaia edo basatia deitzen duena, eta guregan dagoen alde ezkutua, argitugabea aditzera ematen duena. Eta horixe da Etxanizek bere nobelaren bigarren partean dagiena, hots, apaizaren irrika eta sexu munduan barneratu. Esan ere egin daiteke narrazio hau seigarren aginduarekiko fijazio moduko bat eskaintzen duela (nobelaren oharretan, besteak beste, bitxikeria hau agertzen da: apaizgaien artean ba omen zegoen bat, hazi ixurketak zirela eta ez zirela, lotsagatik, maindirak sei hilabetez garbitzera eramane gabe eduki zituen...). Alabaina, "Izotz kandelak" hori baino gehiago ere bada, izan ere erlijioaren zenbait egiaren gezurra (I. Seguiolaren hitzetan) zertan den argi baino argiago aztertzen baitzaigu.

Liburuaren azken atala, Nemesio Etxanizen euskaltzaletasunaren praktikari dagokio eta horretan, gobernadoreekin eta trukaturako gutunak aurkituko ditugu.



"Emakume biboteduna", Xabier Montoia, Susa.

Nemesio Etxaniz apaizak orain 29 urteko "Izotz kandelak"en sarreran, hau idatzi zuen: "Euskal liburuak geienetan 'xeru-xeru' agertu ditugula; denak onak, txintxoak, ia gri+arik gabekoak gabeko giza-emakumeak; eta orrek galdu dik gure eskribitzailleen indarra ta bizitasuna". Hitz hauexek gogoratu zaizkigu Xabier Montoiaren "Emakume biboteduna" irakurtzen hasi garenean, Montoiarena ez baita hizkera 'xeru-xeru' horietakoa. Aipa dezagun, esate batera, pasarte tiki hau: "Gasteiztar peto eta jator guzti haiek, hiriaren ezaugarri eta adierazgarrien jabe zirenak. Hiri bezain makur, zuri, uzkur eta zirtzilak. Alaves petralaren-jarraitzaileak, blusa izandakoak, jaien



ARGIAren harpidedun izan nahi dut

48 ale eta Euskal Kulturaren Urtekaria jaso nahi ditut etxean

Orain ARGIAren harpidedun eginez gero, beste aldizkari baten urte osoko harpidetza dohainik izango duzu. Gurutze batez adieraz ezazu zure hautua:

- ☐ Larrun (urtean lau ale)
edo
☐ Susa, (urtean bi ale)

ARGIA: Industrialdea 1-2. LASARTE-ORIA 20.160 Tel. 37 15 45 Fax. 36 10 48

IZEN DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

HERRIALDEA

Tfnoa

BANKU EDO AURREZKI

KUTXA

SUKURTSALA

SUKURTSAL ZKA

KONTU ZENBAKIA

HARPIDETZA SARIAK (BEZ
barne): Hego Euskal
Herria: 10.300 pzta. / Ipar
Euskal Herria: 685 libera /
Espainia: 10.300 pzta. /
Beste atzerriak: 13.450
pzta. / Airez: 21.300 pzta.

hasieran zapi gorria lepoan lotu eta seiak jotzerakoan purua zintzo pizten zutenetarikoa. Gure aita bezalakoak, bera bezain fidagaitz, zeken eta ostia-jale, bera bezain aluak”.

Ikusi bezala, Montoia behin berriro indarrez eta bizitasunez plazaratu zai-gu. Etxanizek eskatzen zuen grina eta benekotasuna Montoiaren hamaika ipuinotan inon baino hobeto ageri dira: haurren lehendabiziko deskubrimen-duak, sexua, infidelitateak, droga, te-lefonoaren presentzia obsesiboa... Eta Euskal Herrian kokatutako eskenatoki literario horretako gauza bakoitzak, sentimendu eta plazer nahiz desplazer bakoitzak bere izena du. Gogora dator-kigu behin Garaziko trinkete ondoan dagoen horma bateko esaldia: “Arren, dakizuna ez ixuri hemen”; Montoiak espresio zaharkituak alde batera utzi eta besterik gabe “Ez egin txizarik he-men” dio.

Bai, Montoiaren lan honetan ere bi-

zipenak eta izenak uztarturik agertzen zaizkigu. Are gehiago esango genuke: sakontasun psikologikoa bere obran gero eta handiagoa den bezala, bere lanean badago gero eta lortuago da-goen beste sakontasun mota bat ere, estilistikoa edo dei dezakeguna. Ipuin hauek mundu literario koherentea es-kaintzen digufe, eta estilo finkaketa batez horniturik.

Patxi Zubizarreta



”Estilo liburua”, Egunkaria, 2. Edizioa.

”Euskaldunon Egunkaria”koen Es-tilo Liburuaren helburua ez da kazeta-rien eginkizun eta eskubideen arautegi bat eskaintzea; euskaraz idaztean sor-tzen diren zalantzak argitzeko tresna egokia bilakatzea baizik. Adibidez, nola idazten dira orduak?

Nola idatzi behar dugu, “otarre”, “ota-rra”, ala “otar”? Estilo Liburuak erán-tzun zehatzak ematen ditu eta hurrengo atalerz osaturik dago: 260 puntuko idaztarau sorta; aditz, deklinabide eta neurri taulak; inoiz argitaratu den eus-kal toponimo izendegi osoena; berri-tutako nazioarteko toponimo zerrenda; sigla izendegi gaurkotua eta praktikoa eta 4.500 sarrerako hiztegi bat, hainbat zalantza, erabilera oker eta neologismo biltzen dituena. Behar-beharrezkoa euskaltzaleentzat.

Zine-kritika

Behazunezko hilargia

”Lunas de hiel”. Zuz.: Roman Polanski. Aktoreak: Peter Coyote, Emmanuelle Seigner, Kristian Scott-Thomas, Hugh Grant.



Bi bider ikusi nuen oso denbora gutxian. “Frenetiko” ikus-entzun nuela ere ez dira urte asko. Polanskiren jarraitzaile amorra-

tua nauzuela, dudik ez egin. Parisen ira-gartzen zuten bere azken lana eta handik honerakoan ikusi egin behar bada, berriro zuzendari horren hiri nahitaezko horra bueltatuz nolabait.

Filma honek erakusten du nola bihur daitekeen ezta-bidaia (bidai-eztia), beha-zunezkoa eta garratza. Zenbait maitasun motetatik gorroto bizira tarte oso txikia baitago. Areago, maitatzen duenak, gorro-toa ez du zor?

Istoria kontatzeko modua mundua be-zain zaharra da: bidaiari batek beste bate-kin egiten du topo eta asperdura uxatze-arren bere istorioa konfiatzen dio (berdin dio Transiberianoan bada, nola...). Kasu hone-tan, itsasontziz bidai esotiko bat egitera abiatzen dira Nigel gaztea eta bere emaz-tea, Fiona. Zazpi urte daramatzate ezkon-durik eta nolabait “ospatu” edo eutsi egin behar hori. Oscar eta Mimik osaturiko bi-kotearekin egin dute topo. Ez dakite asko-rik!: beren bizi-molde guztiak irauliko diz-kie. Azken hauen amodio-gorroto istorioek zoriontsu zireneko usteak ustel bihurtzen dizkie lehen bikoteari.

Mamia: Oscarrek Mimi ezagutzen du busean. Mimi galtzean, zerutik lokatzetara botatzen dute. Bilatu eta aurkitu du. Lehen maitasun “txukuna”-edo zena, degenera-tzen hasten da (a ze estremuetaraino!), beharrak eraginda, aurrena pasioa zena iluntzen hasten da (sdomasokismoa), eta sentimentu kontraesankor mordo bat has-ten dira agertzen, amildegi egoera batean bizi dira eta sentimendu horien jostailu bihurtzen dira protagonistak, azkenean ez-tanda egiten dutelarik.

Gehien gustatu zaidana, gertatu beharre-koa igarri ezina zela lehenxeago, suspen-tsea, egileak luzatzen dizkigun intelligen-tzia keinuak, Pariseri omenaldia, denbo-ra-espazioen atzera-aurrerakadak egitera-koan erakutsitako maisutasuna, enfin, mon ami, nola esplikatu hain trama konplejua. Nigel bezala, edonor eror daiteke honelako lokamuts batean, entzule soil izatetik pro-tagonista izatera; ez dizuegu halakorik opa, baina bai, gutxienik, ikus ezazueta, zinean, bideoan edo harrapatzen duzuenean.

Zinikoak

ZAZPI TABERNA

Andra Mari, 5 • Tfnoa: 88 69 13 • BEASAIN

KIMU KULTUR
ELKARTEA



Euskaltzaleekin batera

Andre bila

(...)Baina suhasketak, trangelatak bezalaxe, bazuen bere alderdi ona ere; emaztekien lanbidea zenez gero, bisitalariak ere maiz agertzen zirela, noski. Mutilak eta, neskatxekin hitz-aspertu batzuk egiteko, ez zen egokiera txarra hau ere. Ataun aldetik gaueko bisitalari hauei "beilariak" deitzen omen zitzairen, Juan Arin Dorronsorok idatzi duenez.

Eta suhasketaren ondotik, trangelatakoan bezalaxe, pandereta eta kantu, festa giro ederra sortzen bazekiten ondotoxo. Gau-bixita hauek neskatxekin ez-ezik, gurasoekin ere ezkontza-bideak eta beste prestatzeko ere balia zitekeen batzuetan.

Gabiriako Eztanda deritzan baserriko Eujenio zenari jasota daukat pasadizo polit askoa. Eztanda-ko zaharrek esaten zuten, baserri hartako lehenengo bizilagunak Gabiriako Barrenga-ko etorriak omen ziren (Barrenga baserria hantxe dago oraintxe ere erdi zutik). Aita eta hiru alaba denak; amahilda zuten ordurako.

Behin batetan neguko gau ilun bat omen zen. Eta hiru alaba haiek, hala beharrez, suhasketan ari omen ziren sukaldean. Eta aita, berriz, ikuiluko jira egiten. Kanpo-aldeetik etxazpiko erre-karen hotsa besterik ez omen zuten entzuten. Gauda iluna benetan. Eta halako batean zakurra "ti-tau, ti-tau" hasi da, bazterrak txikitu beharrean.

Garai honetan eta Eztanda zulo honetatik, zein ote zebilek?, egiten omen zuen gizoan beretzat. Eta berehalaxe,

atea jo omen zuten eta jeupada bat, berriz, ondotik.

Atera da gure Barrenga (izengoiti horrekin ezagutzen zuten) bere kriseilua eskuetan duelarik, eta zein etorriko?, eta Zeraingo Aizpeko bi mutil gazte omen ziren. Eta Barrengak bai azkar susmoa hartu ere zertara etorri zitezkeen (Izan ere Garroko Joxe Antoniok zerbait adierazita zeukan lehendik ere). Alegia, andra-bila zetozela, segurutik.

--Gabon Jainkoak, mutil haiek.

--Baita zuei ere, Barrengak; ezkaraietan zabizte. Ez al dago otsoen bildurrik edo?

--Otsoak? Badabiltzela ere esaten du jendeak, bai; Aiztiarren bat ikusi zutela edo, erantzun omen zuen zaharrenak. Eta besteak berriz, eskuan zeraman gorosti-makila erakutsiaz, hauek nahikoa izango ditugu errespetoa sartzeko.

--Eginkizunak ere sortzen dira, berriz, batzuetan da... Holaxe, azaldu egin behar gu ere, mutilik zaharrenak, osterak.

--Sartu, sartu barrura, nagusiak.

Eta horrelaxe, etxeko nagusiaren atzetik, sukaldera jo dute biak. Eta han ari omen ziren hiru ahizpak, "tzaaka-tzaaka-tzaaka" suhasketan. Eta sukaldeko atean mutil haiek agertu ziren bezala, ahizparik zaharrenak esan omen zien:--Hara!, langile berriak ere.

«Eta haietako batek: --Hortaraxe gatoz etorri ere, ea liho jotzailerik behar du zuten edo.

--Eztanda zulo hontan jotzaileak hobetogo izango ditugu, bai, emantzaileak baino, ahizpa horrek bertatik. Eta aulki

bana aurreratu omen zien. Eta bi mutilak aulkietan eseri dira. Eta hitz-aspertu bat egin zuten denak ondotik.

Azkenik mutilik zaharrenak adierazi omen zion neskatxek aitari beren gau hartako egitekoa ere; andra-bila zetorrela edo. Aitak bertatik:

--Hor daukak aurrea aukera ederra, bere hiru alabak eskuakin seinalatuz. Mutilak ondotik:

--Zaharrena zahartxo izango dugu, gazteena berriz, gaztetxo oraindik, erdikoa aukeratu beharko dugu. Aitak hitzetik hortzera:

--Aizak, hire etxean erditik ebakitzen ahal diek ogia? Hemen Eztandan, goiko muturretik hasten diagu ba beti.

«Holaxe, tragoxka bana sagardo eman omen zien, eta esku-hutsik bidali zituen etorri ziren bidetik. Eta semea etxeratu zenean, eta pasadizo guztiaren berri amak jakin ondoren, honela esan omen zion maitekiro:

--Ai! Santos, Santos (Santos bait zuen bere izena). Ba al dakik zer kantatzen zuten gure zaharrek?

Larrakin da lastokin egiten da kanpaza...

Barrenga andratara dohana ez dek burutik kapaza.

Izan ere, "arantzarik gabeko larrosarik ez dela", esan ohi da, eta gau-bilera horiek ere, dirudienez, utz zezaketen, zenbait aldiz, ondotik, suhasketak bezalaxe, beren nekea eta penatxoa...

Julian Alustiza. "Lihoaren penak eta nekeak" (Jakin)

JOAKIN ALDANONDO

Michelin Zerbitzu Ofiziala

- ✓ Neumatiko eta "Ilantak"
- ✓ Ibilgailuen zuzenketak
- ✓ Engrase, olio aldaketa eta mekanika

ERROTA POLIGONOA - Tfnoa.: 80 02 57 - 20213 IDIAZABAL



NAGUSIA,7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

Eraikuntzak P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

Kirolak Sport

Ski modalitateetan
espezialitatutako denda

Tel.: 88 16 66
Zaldizurreta, 3



Ingeles maitabera

Ez dakit ingelesak, izatez, maitaberek diren ala ez. Iritziak denetarikoak izango dira noski, baina ipuin honetako gizontxo txit bihozpera denik inork ez dezake uka. Jakin ere, badakigu, ingeles dirudunak txangolari amorratuak direla, eta bi gaitasun hauetaz, hots, gizontxo baten bihotz samurraz eta bere ibilminez, ipuintxo polit hau mamitu dugu. Ez dugu irazleok aitzakia haundirik behar zurian beltz egiteko, alegia, paper batzuk zikintzeko.

Mister Smith, karikaturetan dibujatu ohi dituzten ingeles xelebre baten irudi egiten zait. Lodixka, urteetan aurrera samartua, bigote trinkoak ondo itxuratuta sudurpean, britxes edo delako gal tzak, bisera txipi bat buru gainean eta burua adinako pipa haundia ezpainetan kea dariola. Libra esterlinak berriz, aipatu beharrik ez, guk sosekoak bezala, bazituen hark non-nahitik. Horra bada, Mister Smith miloiez beterik eta lurralde berriak ezagutzeko lehiaz, gure Eus kalerri honetan barrena.

Ormaiztegitik gora bazihoan goizeko tren azkarrean, Sevillarako asmotan edo noski, zeren ingelesik gehienak beren herriko lanbroartetik ihesi, hegoaldeko ozkarbiaren eta eguzkiaren zalez izaten baitira.

Gabiriako paretsu horretan, artzain goan ari zen hemezortzi-hogei urtetsuko neskatila lirain bat ikusi zuen leihotik. Somatu orduko, bihotza xaltoka jarri zitzaion. Artzaintxo haren edertasunak bere barru guztia urtu zuen. Berrogeitabost urte luzeetan ez zuen Mister Smithen bihotza neskatila batek halako moduz ikutu eta orain, tximistak eginaz zihohan tren batetikako ikuskizunak liluraturik utzi zuen.

Alabaina, trenak ez zuen geldi ego nik. Hurrengo geratokia berriz Zumarraga. Lekutan! Haraino joanda topa tuko ote zuen gehiago bere artzaintxo? Erabaki bat hartu beharra zegoen. Bai! Horixe! Alarma joko zuen!

Trena seko gelditu zen. Esatekoa ez da alarma jotzearekin trenean sortu zen iskanbila. Ele-meleak ugari zebiltzan. Batzuek zioten trena bidez behera joa tekoa zela, besteek sua zela. Haruntza gokoek berriz tren batek bestea aurrez aurre jotzekoa zuela eta abar.

Gure pipadunak garbitu zuen bere

auzia behin-bitartean treneko aginta riekin, libranko ederrak barra-barra za balduz eta denekin onezkoak eginda, irten zen trankil asko bere bihotza be teko neskatila ikusi beharrez.

Ingelese, gaztelaniaz, euskaraz edo keinuka izan bazen ere, Mister Smithek agertu zion bere bihotz-mina hain begi ko egin zitzaion artzaintxoari. Neska motzak ere nolabait eman zion bere baiezkoa eta lehenengo trena hartuta Donostiaratu ziren. Biharamonean, Tom Smith ingeles turista eta Mirentxu Etxezarreta Gabiriako artzaintxo Donostiako Andre Mariren elizan ezkondu ziren. Hau baino ezkontza azkarragorik ikusi al duzue?

Europa gehientsuko antzoki, jolas toki eta zinemetan ibiltzez asetuxe gel ditu zenean gure neskatila-ohia, honela esan zion bere senarrari:

--Adizazu, Tom: badakizu nire herrialdera bueltatxo bat egiteko gogo biza ernetu zaidala? Burukeria bat besterik ez da, baina hala guztiz ere joan gura nuke.

--Zuk gogo duzuna atsegin da niretzat, Mirentxu bihotzekoa --erantzuten dio senarrak maiteki--. Zu zara nire bizi eta izate osoa eta apetarik txipiena ukatuko banizu, ez nintzateke zure gai. Beraz, maletak egin eta zuk nahi duzunean aterako gara.

Maiteminduek esan ohi dituzten ha maika hitz eztigarri gehiago elkarri esan ondoren, hartu zuten aurreneko trena Donostiarako eta handik Zumarragara ko, zeren Gabirian ez baitzen trenik gel dizen.

Kilometro bat inguru falta zitzaioten garaian Gabiriako parera iristeko, interbentorea alderatu zitzaioten beren eserlekuko gortina jaisteko. Mister Smithek harriturik galdetu zion:

--Zergatik egiten diguzu halakorik, gizona?

--Bada-ezpada hartzen dugun neurri bat besterik ez da. Ikus dezakezue leihotako itzalki guztiak jaisten ditugu leku honetatik pasatzean, ez zuena ba karrik.

--Garbiago mintza zaitez, otoi, ulertzea nahi baduzu.

--Ezkonduak al zarete? --ekiten dio berriz ere tren-gizonak itxura gabe.

--Bai, baina zergatik egiten diguzu galdera hori?



Olariaga

--Ezkonduak bazarete itzalkia (persiana) jaso dezakedala uste baitut.


Zer ote zegoen Gabiriako zelai eder haietan edonorentzat baina batez ere ez kongaiantzat zilegi ez zena?, ekiten zioten beren buruei senar-emazte gazteak.

Begiratu zuten leihotik eta txunditurik gelditu ziren. Ehundaka neska gazte artzain jantzian tren-bidearen luzeran lerro-lerro jarriarik, trenera lehiatsu begira zeuden.

--Izan ere --dio interbentoreak--, ingeles maitabera miloizorro bat hemengo neska batekin ezkondu zenez gero, alarma jota trena geldieraziz, Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkioga, Gabiria eta auzoetako neska guztiak, edo beren buruak zedoertzat dutenak bederen, egunero atera ohi dira trenera beren edertasunak ingeles baten bihotza ukitu ustean, harekin --edo hobeki esan haren miloiakin--ezkondu ahal izateko. Harez gero arduraz ibili ohi gara, batipat ingelesik badator trenean.

Esan beharrik ez, ezkonberriek leher-gaizto egin zutela, berak protagonista ziren istorio polit hau entzun zutenean.

Jon Etxaide: "Purra! Purra! (3)".



kutxa fundazioa
fundación kutxa

gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza
obra social de la caja gipuzkoa san sebastián